


zeruko ARGIA

IDAZKOLA TA BANAKOLA: OKENDO, 22 - SAN SEBASTIAN - TEL. 26866 - PREZIOA 4 PEZETA

O.N.U.'ren URTEROKO BATZARRA



O.N.U.'ren 24'gn batzar nagusia illaren 18'an asi zan, abenduaren 23'an bukatzeko. Gerrate giroan, igaz beze-la. Aurtengo gai berezien artean auek izango dira: Israel eta arabitarren artean dabilkiten guda argitu-gabekoa, Vietnam, Txekoslovakia, Txinaren sarreara-ez sarreara, arma-uztea, estatu txikiak. Liberia'r emakume beltz Miss Angle E. Grooks aurtien lendakari aukeratua izan da. Berrorgeri urteko emakume au bere erriko agin-

tari da ta O.N.U.'n lehendik asko ikusia da. Lege-emakumea da. Bi seme ditu bereak eta beste pilla bat ere etxeratuak dauka bere errian. Dakigun bezela, O.N.U.'ren sorrera 1945'gn urrillan gertatu zan «San Francisco» ko Eskutitza izendatu zanean. Bere elburua, munduko nazio guztietarako pake-bideak billatzea. Ba dauka zer-egin gaurko egunean! Goiko irudian aurtengo batzarren billera bat azaltzen da.

"XALBADOR"-i OMENALDIA

Xalbador bersolaria, izenez Fernando Aire, Urepel-eko «Xalbador» deritzaion baserrian jalo zan, 1920-garren urtean. Euskal-herrian, bada-kigu ondo Xalbador zein dan. Bersolari gozoa ta sakona. Bere etor-aldia olerkiz jantizta dakar, bere doñua biozkadaz beteta. Bidasoa-z onuzko euskaldunak ez dituzte beti Xalbadorren hitz guztiak ondo ulertzen, hala ere, beren bersoak giro ona sortzen dute gure artean, beren liri-ka barren barrenean sartzen baita. Beste gauza bat ere bai. Orainarte Bidasoaren bi aldetako bersolariak alkarrengandik sakabanatuta bizi oi ziran, geienetan beintzat. Xalbador eta Mattin-ekin danak sorta batean bezeila bildu zaizkigu. Bendeidezuela.

Irailaren 21-go igandean, Donostiko Astoria deritzaion zineman, Xalbadorri omenaldia egin zuten, eta hain zela, Gende asko izan zan eta halako batean berari egin zioten itsuskeri ura ahaztutzeko, txalo, irriparez eta biotz-mihez danak arren eta aupa egin zioten. Gizon jatorren artean horrelaxe zuzendu behar dira okerrak. Batak besteak lagundu eta kementa eman. Omenaldi pilota eta merezitakoa.

Hitz hauek amaitzeko Xalbador beraren berso batzuek jarriko ditugu; hots, 1967-ko bersolari txapelketan oheari egin zizkion bersoak:

Ohe maltea, zurekin badut nik agundainko artez nahiz artetan ematen duzun kolpeño bat edo bertze; bizitze onik zu gabe ez da, hortaz beti dut agitze, ez zeradea zuhar izan zu maitasunaren ohanitze?

Ohe galxoa, zu maltagarri, zutaz ez nitaie ixi, zutaz behartu gabe egun bat munduan ez daie ibili; denak orratz detoz azkenian izaniken ere abili, zutan zortu ta zutan aziak zutan behar degu guk il.



ESKATU:

ZERUKO ARGIA'ren bidez, zure etxera bialduko zaizkizu, zuk nai dituzun liburu ta liburuxka auek:

	Ptak.
☐ 6-garren Paul Aita Santua ta «Il-garren Batikano» Batzarrara» Yurre'tar Yulen A.	90
☐ «Lourdes'ko Ama» - Euskal Meza. P. Francisco de Lazcano. Donosti'ko Eliz-barrutian loratua.	35
☐ Kontu zarrak eta kontu berriak. Edic. «Apakia».	5

BRUÑO Liburuak

☐ Gazteen Biblia. F. Hoffmann eta Ondarrabi-ko F'ren Itzak, 400 A. Zuzastit'k euskeratua 250

EUSKALTZAINDIA BERE URREZKO EZTAIETAN

Agorraren 21'an eta Donostiako Diputazioan, Euskaltzaindia bildu zai-gu, bere Urrezko Eztaien oroitza ospatuaz. Gaurko egunez bildu baitzan lenengo aldz gure Diputazio onetan izkuntzaren babeserako sortu zan eral-guntza au.

Lenbizi Euskaltzain eta laguntzaileak beren ixilleko billera zuten. Gero, agiriko Biltzarra etorriko zan, jende guzientzat.

Lekuona jaunak pixka batean alde egin bear zuala, ta Aita Intza jarri zan Billerako Buru. Asiera, berri illun batek eman zion gure jardunari: IBARGUTXI'TAR JUAN apaiza, euskaltzain zaarretakoa, illa zala. Eren dolumiña adierazi ta lagun joanari bere omena egin zitzaion (G. B.).

Bereala San Martin, batzarreko idazkariak, esku artean zeuzkan idazki ta kontu batzuen berri eman zigun. Alfabetatze lana Kintana ta Begonia Arregi'ren kargu gelditzen zala, lenbizi ogetu zigun. Gero Aita Guillermo Larrañagak egin berri duan «Nekazaritzari» buruzko bere liburuaren berri jakin genduan. Satrustegi apaiz jaun euskaltzainak ere jakin-arazi digu eskutitzez, delako Symposium, Nafarroan egitekoa, ontzat emana izan dala. Beste bi idazki ere irakurri ziran, bata Getxo'tik zetorrena eta bestea Espasa Calpe'rena.

Urrengo, Eusebio Ezkiaga euskaltzainak, Euskaltzaindiaren diruketa kontu nola zijaen, azaldu zuan. Ontan, gauza jakinagari bat gogora ekarri zan: Euskaltzaindia'ren illa eta egiteko guzien diru-gastu, Diputazioan kontu joango zala, erabaki zan Oinait'ko Batzar zaarren.

Siadeco ta Gaur izeneko eralguntzak bakoitza bere aldetik «Euskeraren Egoera» aztertzen zebiltzan. Orain, elkarren artean traturen bat egingo ote-duten esan da, ta onela biak alkarrekin lan au errezagota ta azkarrago burutuko ote duten, esperantza dute.

«Facultad de Derecho» delakoan euskeraren alde zerbit egitekotan ote diran, galdetzen du urrengo Barriola, sendabile jaunak. Arrue Antonio erantzun dio, «nomenclatura» bat egiteko asmoak agertu ote-diran. Barriola jaunak bere aldetik dio: «nomenclatura» baiño protxu aundiagokoa ez ote litzaken izango, Lege-lkasgu orretan, Euskera ikasteko bideren bat zabaltzea.

AGIRIKO BATZARRA

Ateak zabaldu zitzaizkien zai zeudenei, eta bereala genituan gure artean, Diputazioko areto nagusian, bertako Lendakari dan Araluze jauna ta Donostiako alkate berri Ugarte jauna.

Araluze jaunak eman dio asiera billerari, Euskaltzaindiko lagunei bere ongi-etorria adieraziaz eta beren euskera aldeko lanengatik eskerrak emana. Lekuona'tar Manuel apaiz jaun eta Euskaltzaindiko Buru danak, erantzuten dio Araluze jaunari, bere itz eta arerra gozogatik egin on erakutsiaz. Joan dan urtean, Euskalerriko Uri Nagusietan bildu diran, «dio», Euskaltzaindi onen Urrezko Eztaiak ospatzen. Eta gaur, billera oien azkena egitera goaz, gure Urrezko Eztaien jaiak onekin amaituaz.

San Martin, idazkariak, Euskaltzaindiak orain berrogei ta amar urte, egin zuan Billeraren agiria irakurtzen digu ondoren. An ziran aurrengo euskaltzainak: Azkue'tar Resurreccion Maria, Arturo Kanpion, Eleizalde'tar Luis eta Julio Urkixo jaunak. Gero izendatuak izan ziran Karmelo Etxegaray, Agirre Txomin eta beste batzuek...

Gero, tarte bat artu zan, Kooperatibismo ta Xepelar sariak, beren irabazleei emateko. Sariuak, Kalonje ta Lete jaunak izan ziran.

Lau izlari izan genituan urrengo, bakoitzak, Euskaltzain Zar baten oroitza piztera zetozenak.

Aurrena Mitxelena Luis euskaltzainak, Eleizalde'tar Luis'en berri eman zigun. Eugenio D'Ors'ek bein esana omen zion: Eleizalde zana, bururik argienakoa zala. Ta ala agertu zigun Mitxelena'k bere itzaldian. Bergaran jaioa zan eta 40 urteko zala, min biziak eraman zigun, artean luzaro gure euskeraren alde lan egiteko ain prest zegoena. Iru gizaldiko gizonak gera, Alek, gu, ta gaurko gazteak gure ondoren. Elkarren soka ezta eten, dio Mitxelena adiskideak. Gure irizkiak ezitza beiti elkarren laun, baiña aide berri oiek aldatzen badira ere, elkarren arteko lokarri izkutu or dago, gure lana etengabe egin dezagun euskeraren alde.

Zugasti'tar Anizeto apaiz jauna jalki zan urrengo. Erraman Intzagarai apaiz jaunaren bizi ta lanak ailtzera. Aurrena —esan zigun Zugasti adiskideak—, GIZON osoa zan gure Intzagarai euskaltzain zaarra. Gizon apala, atsegiña ta gizartekoa; langillea, langillirik izan bada. Bere elizako lanak bukatuta gero, an joango zan Diputazio ontako Liburutegira, Urkixo Julio'ren antzera. Gutxi, arek bezela, gure Donostia ontako eliz-kondairaz ezagutzen zuanik. «El Cura erudito de San Vicente» deitzen omen-zioten. Oso donostiarra Don Ramón. Baiña parte zaarrekoa. Geienez, itxasoa begiatetik galdut gabe Antiguoko auzora joango zan. Baiña ez ari esn Donosti berrira joateko. Arrantzaleak ere oso bereak zituan. Itz neurtuetan utzi zizkigun bere idatzialetatik geienak. ARGIA asteroko zaarreen ere asieratik ikusi genduan bere izen-orde ELURMENDI, Azkenengo bere urteak, Euskalerriaren mifex mindak izan ziran. Artetxe'rekin ibillian, illun eta triste ta bildurak artua zebilen. 1947'garren urteak eraman zigun gure artetik illen erria.

Villasante, Aita prantzizkotarra, genduan urrengo izlaria, ta bere akitu bear zigun euskaltzain, Soboro Aitube zan. Mondrago'n jaioa gure Aitube argia, 1879'garren urtean. Andik Gernika'ta aldatu zitzaigun eta erri ontan bizi izan zan luzaroan. Gregoria Gangoiti'rekin ezkondu zan eta bere euskaltzainasuna aurtzarotik nabarmen zitzaion. Txomin Agirre il zanean, aren orde izendatu zuten Euskaltzaindiko lagun. Gernikako alkate ere zan zan urteetan. Erbestean luzaro mindua, bere erria berririo biurtu zan eta Gernika'n il zan 1958'garrenean, 84 urte zituala. Karmelo Etxegarai ta biak elkarren ondoan ditugu Gernikako illerrian. Zentzu aundiko gizona izan genduan, eta bere liburuetan zentzu ta neurri au degu nabarmen eta agiri.

(BUKAERA 4'gn. ORRIALDEAN)

DONOSTI-KO ESTROPADAK

Bertso berriak Kale Berriko batek jarriak

- 1 -

Emeretizgarrengo
Dijuan mendean
Irurigel urte ta
Beatzit gañean
Agorrenen zazpiyan
Eta amaseian
Estropadak bikañak
Donosti etzean
Jokatu izan dirade
Oi dagon tankeran

- 2 -

Estropadak ba-dute
Betiko iskanbilla
Gal orretan tajutu
Dira bertso pilla
Eta ni izango banitz
Ortako abilla
Gaur jarriko, nituzke
Balta beste mila
Eman alai goratzen
Zumaiko kuadrilla

- 3 -

Zumalarrak dirade
Ontzi egileak
Motorra k eta tresnak
ezinik obeak
Baña txasorako
Ez ziran zaldu
Orain azaldu dira
Or ere trebeak
Lasaiustu dituzte
Askoren sakelak

- 4 -

Zortzi ziran aurtengo
Estropadak
Ondarrabi, Lasarte
Gallanduri jarriak
Astillero, Zierbana
Portu berriak
Pasai-ko bikotia
Adorez betiak
Donosti ta Zumaia
Azkentzat lagiak

- 5 -

Jaungoikuaren nayak
Inork ez dakizki
Zumaia bere txandan
Jarri zan lenbizi
San Pedro eta Donosti
Atzetikan larri
Zierbanatarra berri
Zebillen urrutu
Ta inork uste ez zuna
Zumaia nagusi

- 6 -

Biarreguen txanda
Jokatu zan gero
Lasarte aurretikan
Irten zan ezker
San Juan bere ondoren
Ekin zuan bero
Ondarrabin papera
Obe zan espero
Eta danen atzetik
An zan Astillero

- 7 -

Bandera jokatzeko
Lasarte zan aurren
Sanjuandarrak bigarren
Zumaiaurren
Laurgarren Donostia
Danak onak ziren
Bertaja aundirikan
Inorrek ez zuben
Pillota teltatuan
Oraindik zegoen

- 8 -

Gero asteartian
Ilgandean ezin
Eguna argitu balzan
Aize gorrekin
Jokatu zan bandera
Giro onarekin
Gauzak gertatu ziran
Danentzako berdin
Eta nere kartera
Leno bezin arin

- 9 -

«Quinto» ginala beti
Zioten auzuan
Orain aintza gelago
Badeagu buruan
Lasarte Koronela
Comandante San Juan
Eta bere merituz
Zumaia kapitain
Ta urte pare batian
Beleike Jeneral

- 10 -

Orretako bear da
Kementsu jarraitu
Alkartasun biziyan
Erii dana batu
San Pedro Arrantzalia
Zandaria degu
Orrei ere laguntza
Biziro eskertu
Berriro bear bada
Ez dedin ukatu.

K. B.

Ez Merkenak

Bai Onenak!

Janari bidez izaten dira
ganadu on, indartsuak,
Eta nora jo jakin bear du
baserritar burutsuak,
Berebiziko aragi pillak;
gañera esne putzuak, nai oñe
Oñe guziak berekin ditu
Fanderia'ko pentsuak.

FANDERIA

ERRENTERI

TRANSPORTES

azkar

ERAMAN-EKARRIRAKO KAMIOI AUNDIAK

Donosti'tik eguneroko:

Barcelona, Zaragoza, Valencia, Madrid, Oviedo, Gijón,
Iruña, Bilbao, Gasteiz, Jerez de la Frontera, Cádiz, Ali-
cante, Murcia, Cartagena, Granada, Almería'ra.

Astean iru aldiz:

Sevilla, Lugo, Coruña, Orense eta Vigo'ra.

Eustasio Amilibia, 13 ta 14 - DONOSTIA

Tefnoak.: 25.457 eta 26.987

NERE BORDATXOTIK



Bukatu da Donosti'ko arrau
pesta, 1969'garren urteko leia-
ketak eman dituzte ematekoak.
Gauza bat aterago degu garbiam:
urte batzuk atzerago gure estrop-
adak azkenetan zira bazirudin
ere, ezala olakorik. Berebiziko
xuxperraldia dutela; beren on-
era dotozela berriro. Indartu, sen-
dodu, berpiztu egin dirala.
Eureka!

Berebiziko jendetzak Donosti'n
agor'aren zazpigarren egunean.
Denbora ona, itxaso ona. Etze-
gon ez aitezkerik ematerik.
Eguziak etzun damentzat on-
do berotu. On ustekoak atzean
gelditzea sarri gerta oi dana da.
Bi ontziren izenak zebiltzan be-
ste guzian gañetik: Lasarte ta On-
darrabi ziran ontzi oiek. Izenaren
pare agertu zan Lasarte.
Ondarrabi'taz ezin beste
orrenbeste esan.

Agor'aren amalaugarren egu-
na.
Inperneku deabru danak kan-
poan zira ala esan ziteken. Denbo-
ra traketis eta biurriagorik ezin
egokitu. Aize, euri ta bisuts,
etzan giro, arranetan!

Ta... goiz goizetik denboralea-
ren arpegi ikusirik, nola bildu
zan Donosti'n alako mundutza?
Eza sinistekoa ere. Ekaltzak
ba-da ba jendea atzeratzeko ta
kolitzeko adurra. Baña, aurtengo
estropadak sortutako sua ta
berotasuna danen gañetikakoa
izan.

Arrauzaleak etzeuden etxean geldituko.

Ba-dakizute alperrikako joane-
ra egin gendula Donosti'ra.
Aizearen indarrak nai zun al-
dera astintzen zitun balizak. Etze-
gon aiek beren tokitan errendi-
gabe. Dantzan zebiltzan etenik
gabe.

Jai-eratzaleak estropada era-
goti baarean gertatu ziran.
Ustean gelditu ziran gure pozak.
Ikusi nai gendunik ikusi gabe
eteratu bear.

Ala obe gañera. Gauzak lege-
z egin, edo batere ezin! Jokatzek-
ero dantetzat kondizio berdian.
Beste zerbait gañera: gizen
biza itxurki ta diru guzian
gañetik dagona da.

Agor'aren amaseigarren egu-
na.
Arrigarritan arrigarria egun or-
tan ikusi gendun.

Asteun buruzuria: lanerako eguna.

Nun demontretatik bildu zan
Donosti'ra ainebeste kristau?
Arratsaldeko bostetan lelake-
ta. Arrau-jaiak bukatu zalarik,
pauzorik ematerik etzegon Do-
nosti'ko parte zarrean. Jende
olatu beldurgarri batek estali zun
Donosti.

Garrantzi gabeko, gatz eta pi-
per gabeko estropada batzuk
izan balira, etzan alako bete-
darik ezagutuko.

Beste batzun ondoan altamen
ekxakak izan dituzte aurtengo Pa-
sai San Juan eta Zumaia'k.
Garaia iritxi zanean, ordea, bi-
garren eta irugarren sartu ziran
aralra, izen aundiagokoak atzean
utzik.

Asko egin eta geiago nai?
Dirua jokatu ta galdu?
Jokalariak beti du arrixko ori.
Estropada aurreko egun batean
bertso bi ba-nitun jarriak.
Zenbaitet ezte ezer gozatzen
jokatu gabe dirurik,
ez al dezute ontzat artuko
emandako kontsejurik?
Jainkoagatik etzazutela
nolanai galdu bururik,
izan zazute auxe gogoan:
ezta joko segururik!

Amorrazioz gañekia gero
galduko gogoratzean,
arintasuna nabaitzen baita
karteran edo politsean.
Sarri gertatu izanda gero
ordu latza etortzean,
txar ustekoak aurrean eta
on ustekoak atzean.

Agor'aren amalaugarren egu-
na ain traketisa izatearekin, ipur-
diko aundia izan zun Donosti'k.
Ezin kalkulatu zenbaterakoño
galera.

Dakizutenez, Trinidad Plazan
jalaldi bikain bat zan ospatzeko.
Biltzen zan dirua bi andre alar-
gumen eskutara joango zan: il
berriak ditugun «Usategieta» ta
«Agerre» arrijasotzale ope-
stuen emazetara.

Une bateko aterrurik etzan
izan. Jalaldirik ezin eraman au-
rrera. Beste baterako utzi bear.
Noiz egokitu urrena ain egun
egokia?

Amar-amabi kargajasotzale an
zeuden lanerako gertu.
Xentimorik kobratu gabe zi-
gozen abildadeak erakustera, il-
dako maxu biak gogoratu.
Milaika euskaldun zeuden aiek
ikusteko zaletuta, edo karidadea
egiteko zaletuta.

Urrengo jai danak artuak. Pe-
nagarriak!

Mintzatu nintzan Salaberria
jaunarekin. Jalaldia egin gabe
ezta geldituko. Noiz etzagiku. Ja-
kin bezin azkar adieraziko zaizu-
te.

Irabazle bikain bat izan da au-
tengo estropadetan: Lasarte-Mi-
txelín.

Bitan jokatu, ta bitan beste
guzien aurretik. Pasai San Juan
urrik geien emandako.

Bigarren arrau-jalean, Zumaia
baño lau segundo lenago sartu
zan Donosti.

Alare, bi egunetako denborak
bat eginda, Zumaia irugarren.
Denborak ikus ditzaugu:

Lasarte'k, bi estropadetan, 43
minutu ta 49 segundo.

San Juan'ek, 44 minutu ta 10
segundo.

Zumaia'k, 44 minutu ta 49 se-
gundo.

Donosti', 44 minutu ta 56 se-
gundo.

Ondarrabi'k, 45 minutu ta 8
segundo.

Pasai San Pedro'k, 45 minu-
tu ta 16 segundo.

Astillero'k, 46 minutu ta 11 se-
gundo.

Zierbana'k, 46 minutu ta 33 se-
gundo.

Alitzek-maitzekirik egund ez-
ta paltazen. Atzetik gelditzen di-
ranak, batez ere, beti oi dute
zerbait esateko.

Mutil batzuk gaixo zeudela,
ontzirik txarrena egokitu zitza-
ela, kalerik txarrenetik jokatu zu-
ela, itxaso baregia gertatu za-
la...

Beti zerbit, au edo bestea.
Ala zan gure txiki denboran, ala
da orain, ala izango da emendik
berrogeri urtera ere.

Dana dala, zerbit ba-da guziz
pozgarria: il zorlan zan jalaldia
erabat amaberritu dala. 68 ur-
tean irain dun arrau-jaiak, au-
rrera ere iraungo dala, itxurak
diranez.

Gaixoa sendatu dala: osasun-
tsu agertzen dala gaur.
Urte on askotariko bizia opa
diogu. Estropadarak gabe erren
geldituko litzake Donosti.

Asko ere asko galduko luke.

Askari

SARI AUNDIAK ETA ZURE EROSKETA !UTSEAN!

Erosi ORAIN zure erredizak:

Amuebladora **COMERCIAL HISPANIA, s. l.**

Moraza, 3 eta 14

DONOSTIA

San Marzial, 12

IRUN

PROBINTZIKOAK, ENTZUN!

MONTAKETA ETA ZURE ETXERA ERAMATEA EZTEGU KOBRATZEN.

IGANDE TA JAI EGUNETAN 5-etatik 7-retara idikia.

TA EUROPA-Z, ZER?

«TIMES», egunkari ingelesak, emendik aurrera Europa'ri buruzko orrialde bat ekarriko duela, adierazi du. Ta orren arrazoiak garbi jarzen du: Britania Aundiarri, izan ere, —dio berak—, Europa batuar ekin, beste hain ekin baino itsatsiago bizitzeko denborak urrertzen baitzailzko.

Estadu Batuek, jarraitzen du, ia osorik ezagutzen ditugu; baina Europa Londres'ko irakurleentzat «ez-eguzun Aundia» omen-da. Frantzi'ko idazle ezagun batek, beste aldetik, dio: Frantzia, Europa'n itxurazko lekuan agertzeko gauza da gaurko munduan. Baina Lurralde Nagusi izaten irau nai badiu, Alemani ta Ingalaterra'rekin bat eginaz Europa batua sortzeko alegiari egin bearko dituz. Ta prantzesak Europa'ren garrantzia ezagutu dezaten gogoaz agertzen du urrengo lehorrean.

Makiniak egin duten aurrerapen onekin, eta 1.000 kilometro orduko janaz darabilten egazkinen aldi ontan, izarren bideetan sartu dagoen gizarte onetan, edozein elkartek Europa'ko lateriak dituzten baino bizilagun, lanbide ta lur askoz ugariagoak bear ditu. Eskualdeki aberatsena ere, aul gertatzen da gaurko egunetan. Elkartzen badiu, berriz, guztiak bat egingin, eun bat urterako gaurko munduak eskatzen duan mailan jarri ditzeko. Ori ikusteko, ikusi ditagun zenbaki batzuek:

Ipar-Ameriketako bizilagunak, 190 milioi inguru dira. Errusia'renak, 233 milioi. Europa'ko Sei Laterriren bizilagunak, 183 milioi ditugu. Estadu Batuetan industri-lanetan ari diren langurriek 24 milioi dira. Errusi'koak 35 milioi; (alde aretan teknika zerbitu atzeratzeago baitegu). Europa'n 32 milioi langille daukagu. Ontan berdintsu gaude.

Georges Hourdin, pentsatzaille frantzesak dionez: Frantzi'a, gaurko aldarek orrialde izateko «Ezta egin naikoa alegin, langilleak diruketa-silean eskua oso-osorik sartu dezaten, maila guzietan».

Europa'k, gizaldi-zeur, Kristautasuna, Gizonaren Eskubideak eta Grezia'ko filosofia sortu dituan gizarte onek, oraindik geroako kondairazatu dezake. Ori gure eskutan dago. Europarrak geran ezkerro, gure lurra on obeto ezagutu bearrean gara.

Prometeo'ren burubidea

Gaurko gaztedia, erabat artzera, eta batipat ikusiedia, ernea dela atortzeko, 1968'ko mutazta aski da. Ekinizale dela ere, ikasle, baino areago, esatera aurreratu nintzake. Ez noa orain jokara horren aintz maizak arakatzera. Gaurko gazteen eskutara etorriko da bier, beti izan den arabera, gizarte agintea. Gaur eta bier, alabaina, gizartearen gidari izan beharko duten gizakiak jantitez jantizaki eta zortuak bilakatzera deituek daude. Aterakada gorrian ubiatuko da, bestela, gizaia, ta atzeraldiak gertate belizetara, amiltzen dirala, historiak garbirogei bain eta berriro adierazten digu.

Aurreragoaren kontzeptu errian ez erortzeko, oharitazi nahi dut, teknologiarren nagusitasinean ez duta la ezartzen aurrerapenaren seinale lehena. Teknologia, aldiz, politikaren menpeko eta zerbitzari izatera erakarri behar dela aurrerapen zuzenik nahi badugu.

Ez dago gelaio politikari jantzia eta jantitakeri gabe. Grezia, bi mila ta bostem urte. Euzkara, Estaduko arazoetan edozeinen iritzi entzun eta aintzakotzat artzen zen, teknika bereziaren alorretan eziz. Asko zen, nunbait orduan, Herme'sek gizon orori emandako onestasin eta zuzentasuna. Sendimenduz gainera, orain politikari ekinzia da behar beharrezko; inolaz ere ez, ordea, ez aski, ez beti nagusi. Teoria gabe ez dago ekinizari, ez politikari.

Hau gaurko gaztediak aski irakurri eta entzun daudika. Bide horietaz landara, hots, teoria lagatu, itxumustuan dabilena atortzen du. Baina gazteak astirik ez du bizitarako zimendu harriak patxaran ezartzeko. Horrexegatik, autore-gidari autatu bat edo beste baino ez ditiu irakurriko.

Pentsa-maisu hoiak, nola ez, ez dira gazte. Zahareri ziten herrik ez du debekatzen pentsatzaille hor-benak adintsuak izatea. Esperimentari gabe ez dago pentsamenduz pentsaberritzen eta zoriten da gizonaren gogo.

Gauza normala da gazte suharrak maiz batengana argi eske, dotrina bila, urbiltzea. Antzinakoei baino oraingoei balio handiagoa ematen zaien, ta autoreak berealaxe jarritzen dira modan. Perila hemen datza. Bide bati itxumustuan gabe, beste guztiak alde batera utzita. Frantziar dokusgin adibidea soilki artirik, Althusser'en eskolan mugiltzea eta beste guziki, dirola Sartre, Garaud, Aron, H. Lefebvre, Rouseur... etabar, zokoratzea. Lanbide gisara, eskola bati atxikitzea onbide da. Norberak daki zein autu. Bere eskola kutunaren kritika egiteko bihotza dadukan gazteak, alabaina, beretuko du norberaren pentsaer propioa. bere eskola eraberritu,

edota bestea sortaraziko duana. Badago gaur honelako gazteen premia bai Euzkara Herrian, bai munduan. Oraindik arago. Oraindik jantiz, pentsatzaille eta idazleak eziz, autore klasikoak bain eta berriro irakurri eta miltzera jarri behar du gazte intelektualek. Lan astin, luze eta onurak hori ez dago baztatzerik. jantizaren abar orotan.

Ez da gazte gaztea, libre ez bada. Eta pentsabidean librikoki ta aske ez dabilena, ez da pentsatzaille, ez da jantizaille, eta ez aurreragile. Gazteak zaharagoen premia dute, ta aurrerapenak gaztearen beharra daduka. Gazte pentsatzailleak Prometeoren burubidea maite du, hots, «aurrez pentsatzea gauzetaz doren. Bere urtean daduka bizitza gizaia, ta pentsa ahal izateko esperientzia nahitaezko izan». Norbera-rena ezean, bestea, zaharagoena aprobetxatu behar. Horrela bizitza-sun hori esker, berrietasuna sortzen du, ta herriari eta gizaia ikuspegi berriak azaltzen zaitza.

H. EGINO

Gizon zuzenaren bidea

Gaurko munduaren begitarte zontataraio ez ote degu miseria, libertate eskasiaz, zuzenagabiaz joa eta Zaurtua ikusten? Gaurko gizaldek agertzen daukuten itxura horren aintzinean, gizon zuzen bat ez ote da gogoetatu, nor behar duen agertu eta zer behar duen egin? Gizon zintzo bat hola gogoetaten baldin bada, zontatek gelaio ez ote luke egin behar, Kristau edo girtxino batek?

Mundu ezin Konprenitu hontan, gizon, izaiteko xantza duenak, gizon agertzeko eginbidea du. Beretaz eta bertentzak, gizon agertu beharrene aurkitzen da. Gizon izan ez ditzakeneri, gizon izaltek xantzarik ez duteneri, gizon izaltek xantzarik, bidea, ahalbidea emaitera behar du lelatu. Zuzentasunik eta libe-rtatearik ez den mundu hontan, diruak eta gizonen burugabekeriak galdutako mundu hontan, egiazko gizon batek, noiz nahi eta nun nahi, gizon zuzen eta zintzoak, jazarre edo erre-boluzionario behar du agertu. Zuzen-tasunaren eta libertatearen aldeko gudari. Ala ez denaren zuzentzaile eta ala denaren agertzaille. Hitz batetz, egizale behar du agertu, den tokian. Kristau batek zontatek gelaio ez ote du eginbide hori bere gelaio? Kristau bat bazezala agertzen da, zuzentasunaren, libertatearen

ESKRITOREAK

Gaur eguneko Brasil-go olerkariak asko maite dituzte. Ez litzake orreza neretaz zergatik gaurko Brasil-go poetarenganako maitetasuna nola sortu den nigan adieraztea.

Eta ez poetak bakarrik. Baita Brasil-go eskritoreak atentzio aundia ematen didate.

Oraindik orain batzuk bat egin dute Sai Polo-ko errian Brasili-go eskritoreak. Gaurko idazleak buruz gauza sakonak esan dituzte bertan. Askotan itzari eragotzenak ipintzea añaorik ezta, itza rindu ta argitu-erazteko.

Batetik esan ez ditekenean, alegintzen gera bestetik esaten. Era batera ezin bada, bestera.

Eskritoreak, buru-lanean ari diranak, larri-unean oso, krisi-ean omen daude era bat gaurko munduan, esan zuten Brasil-go batzarr orotan. Eskritoreak bere bere bano gelaio, eta ala ta gurtz jendeak inoiz bano kuso gutxiago egiten diola idazleri, alortu zuten Brasil-go batzarrean.

Zergatik? Irakurteak pakea eskatzen du aurre-aurrena, eta gaur egunian pake izpi aundirik ez dago bazterrean. Ez ori bakarrik. Zinea ta telebista liburu-aren etsai ikaragarriak ditugu.

Telebistaren eda ematen digutena artu bear, eta liburuak izan ez gertatzen. Geuk aukeratu dezakegu gaian irakurtean. Geuk nai deguna irakurri deza-kegu libertate osoz.

Nola ditekete beraz gaurko eskritorearen kreditu eskara?

Eskritoreak jendearekin egokitasunik ez daukalako. Orra egia.

Alde batetik gaur-eguneko eskritoreari oso zaila izaki bere luma lan bakarretik bizitzea.

Eskritoreak bere luma saldu egin bear askotan, eta orra or norberaren leialtasunaren antz ariskurik aundiena.

Eskritore izatea opiziozko zailena ez baldin bada, zaila da benetan, gaurko munduan batez ere.

Nik esango nuke besteak burua jartzen duten tokian, eskritoreari biotza ipintzea tokatzen zaila. Bere biotza erriari ekekiti, orra or idazlearen egin-bearra. Beñere biotza ez izkutu. Estilloa bere biotzaren zerbitziorako jarri. Gizon oso agertu. Jendea egi-egiazko eskritorearen zai-zai bait dago.

Alderdi guzietatik aintseste traba jartzen zaitzala nola gaur eguneko eskritore izan?

Bañan kirapillo biurri orretan dago bere gloririk bereziena. Inundik ere itza ez beñere lauotzean. Itzari errespetu aundiena izatean.

Ainbeste modu bait daude judaskeria itzari egiteko.

José de Arceche

KEZKAK

BEOBIDE IRUDIGILEARI AZKEN - AGURRA

Luzaro aintutzen egon ondoren, agorillaren 11'ean zuan bera ez-kenarasa. Arnas apala, ixila, bere bizitza guztia ere apala eta pake-tasuna izan zan bezalaxe. Golan bego Beobide'tar Julio euskal-irudigile o-setsua.

Zuma'ko erri osoak ezetzik, beste askok eta askok agertu diote maitasuna. Jendetzako, Zumala'ko elizan kabitu ezin alako, agur egitera joanda.

Gizon arrigarria gure Beobide zana. Bilzro barrurakola zian, ala ere, ezagunel eta ez-egunel, daniel agur egingo zien irripartsu bere ibildidietan. Adiskideentzat eta ezagunentzat, berriz, nork esan beien atsegin eta esker onekoan zan.

Berekin zuan Beobide'k ere euskaldun gaitza: ixila, lotsatia zaia, zabalkunde edo «propaganda»-ren igeska ibiltzen zala. Guri gorp-bera, 1943 edo 1944 zan. Zuloaga margolari aundiak, irudigile trebarei mesede bat egiteko asmoak zituan. Baita lanik aski aurreratu ere.

Madrid'en Erakustegi ezagunean, Prado'n txantxetan ere, erakuseta bat eratzi zion: tokia eta errezatua-kan eskura-esgura jarri, nai zituan irudi guztiak an azaldu zitzen. Artara bai jende ikasiek ezagutuko zutela eta goraduko. Baina, tamalez, atzera egin zuan Beobide'k eta etzuan egin ipini ikusgai.

Beste biei Bartelona'ko izparrin-gi baten nagusiak ere eskaini zion

beste orrenbeste. Erakuseta antolatzea ezotzik, baita izparringian be-ri eman eta ezagutu-erazte ere.

Alperrik orduan ere. Eskuan zaur-iren bat egin zuan ustekabea eta ori naiko aitzaki, irudi-erakuseta-rik ez burutzeko.

Zan bezalakoa zalako, zenbat tratu txar ez ote zuan artu! Usurbi'go «Ingemar» etxeak ipini zion estal-pean, esate baterako, libetateak eta ilabeteak antze, eskuan kila eta er-diko mailua zuala, neguko girorik gogorrenetan ere alze otzak artuaz, egunero goizeko trenean joan eta iluntzean etxeratzan zala.

Jarduera orren buruan lortu zuan Juan Bosko donearen irudi aundia, izugarria, arrizkoa. Neguko alze otzak baino min eta nagibe zorro-zagoa ematen zion, ala ere, berak golen jartzeko egin zuan irudia, ge-ro lurrean ikuste.

Donosti'ko Ategorrieta'n Domingo'tar lekaimen elizako irudiak beza-la: Errosario'ko Ama Birjiña'ren iru-dia da, zurezkoa. Eta an dago, ume-txoek ao-zabalik begiratzan dioten irudi polit oietakoa balitz bezala, «eskaio-lazkoa» balitz bezalaxe, da-na pinturari, negargarriro, ezipnalk gorri-gorri dituala.

Izan bear du Usurbi'en ere San Luis'en irudien bat zeoro pinturaz beza.

Eta Beobide zanak, onaren onez, utzi egin du bere esku-lan txaloga-rii atarramentu ori ematen.

Arria bezala zura, biak zaitzakion atsegin bere langintzarako. Etzuan izutzen arriaren gogorak. Bere sa-solan beintzat.

Orain bere zartzaroen naiago zi-tuan Karrara'ko marmol zuria edo-ta alabastroa, askoz bigunagoak dira-lako. Eta, jakina, zura erabili izan du geiena len eta orain. Gzaltain-egurra biziro gusotako zuala aitor-tu zidan.

Azkenengoa, zeoro bukatu gabe utzi duana, kaoba-gerri aundi bat zan. Gaur, Kristo Gurtzukoaren iru-di da. Beso gabe golditua, tamalez. Baina bere seme apaizak lleta-Me-zakoan esan zion bezala, odo-ga besorik gabe: betiko zoriora-ko sarreraren besarkatuko duten besoak izkutukoak, ikus-egiazki bait-dera.

Bi joera nagusi izan ditu Beobide, eder-gile argiak. Batetik, eliz-irudiak: Santuak, Ama Birjiña'renak eta berezi-bereziki «kristo»-renak. Esku-vaioz eginak noski; eskulan trebe-tasuna nabari dutenak. Baina ara-gelago, esango nuke, biotz jainko-zaletaren eragila eta sinismenaren be-roa erakusten dutalardi oiek.

Goi-gotik ordainduko diote. Ain-beste lan eta izerd, ainbesteko si-nismen eta maitasun, ezin esan-ala igurtzi eta maitatu, ordainduko di-kiote egelagorekin zuean. Bearra izango. Bestek ez bait-dituzte ordain-du: eta ordainduko ere.

Bigarren joera nagusia, euskal-ar-pegial. Arrantzale ta neskatx, zel-nen arpegi ederrak! Bai benetan egoki landuak! «Au dek gauzak! e-derki zegoki!» esan erazten diote ikusleari. Ikustekoak dira benetan. Itzez adierazterik ez dago. Nik ez nuke asmatuko beintzat.

Zenbat eta zenbat euskal-arpegi-ren tajua, euskal-tankera eta egitu-ra, or gelditzen dira —biz-bizirik, esango nuke!— or gelditzen dira zurak iraungo duan arte. Or geldit-zen dira arri birturik, geroeneko gogogangari.

Betoiz gaur Beobide'ren urratsak jarraituko dituzten irudigile euskal-dunak. Izango al dute emen lurrean arek baino esker oieak! Eta Beobide'tar Julio eder-gileak goza dezala edertasun beteak, Kristo'ren irudi-gileak besarka dezala bere maitasu-netako Kristo bizi.

GAZTANAGA'K

politika zuzenbideratzeko. Gaurko populu zangoparuen libratzeko.

Jazarri. Beti jazarri, politikari eta ekonomian edo Herriaren bizibidean, zuzentasuna eta libertatearen errespetatuko eta errespetaraziko dituen sistima berri baten xutik emaitako. Bide eta lege berri zuzenak behar dira bilatu, moldatu eta ballatu.

Herri baten estruktura edo erai-kidurik dute manatzen Herriaren bi-de bai politikari, bai ekonomian bai eta gizartean. Herri baten erai-kidurak Herriari guzien zerbitzuko izan behar dute, eta ez bakarrik zontal-ten zerbitzuko. Herri baten erai-kidurak agertzen dute Herri hartako gogoaen helma herri hartako buru-zagien neurria.

GEXAN LANTZIRI

nik balia, ez dezake beste bizi mo-durik ekar. Sistima galgari hori gi-zonaren gogoaren zolaraino sarturik dago-gogo molde horrek ari dauku mundu hontan gizontasuna eta gi-zonaren batasuna zahutzen.

Gaurko Kristau gizartea edo Kris-tau Herria bera, mundu hunen sis-tima kapitalistan leporaino sarturik dago. Berrialde eta arrosalieder ba-rien beharrene dela, ez da dudarik. Hitzeez bestalde agertzen dia ba-ga-ki eta behar den axola, injustiziar-eta libertate eskasaren pean daude-neri buruz? Ezinbiziak jotzen eta miseriak hartzen dituenori buruz? Kristok egin, Elizaren edo Kristau Herriaren etsalrik lotsagarrienak Kristauak berak diral Gaurko Eli-ztiarrak, karitate hitzaz aberats di-tugu, bainan zuzentasunaren, libe-rtatearen eta egiaeren behar gorrian. Badaitakea egiazko karitateari, hiru balio horiek gabe?

GIZON ZUZENAREN ARMAK

Lehen arma: jazarzea, jazarri, be-ti jazarri makur eta gaizki dauden gauzen kontra, bai eta gauza ho-riek kudeatzen dituztenen kontra. Beti jazarri, zuzenago egitea go-zaun. Gaurko munduak gizon zin-tzoak, aintzindari eta buruzagi zin-tzoak, jazarlek eta jazarlek dituzte askas. Jazarle horiek trumilka sortu behar lukete gaurko ekonomia eta

eta egiaeren alde agertzen den neu-riari.

BIDE NEKEA BAINAN ZUZENA

Aberatsek eta indardunek gida-zen dituen mundu hontan, gizon zu-kenak nekea nekearen gainean aur-kituko du. Zontat nahi gabe eta oi-naze ez ditu jasan beharko zuzen-tasunaren eta libertatearen gatik? Gi-zon zuzenaren bidea hor da: nahiga-bean, nekean, oinazean, guduan... Gizon zuzenaren bidea egiazki hori gauden, neholaz ere, Kristau zintzo batzera, ez daitake beste nunbait izan: goxotasunean, ahelelan, loe-rrian, ixiltasunean!

Gizon zuzenak, bere lanaren eta eginbidearen betetzeko, zinez ikasi behar du, nun den mundu hantako nahemenduen iturria, erroa. Lester oharitzen da iturri hori sistima be-arran dagoa: Kapitalista sistiman. Sistima hunen bekar bezak batzu ez ditugula ba, naiiluna jendenen buru-zagi boteretsu ikustey? Gaurko bi-zibidearen, jantizaren eta indarra-zen gider guztiak, ez ote daude ba-bakar zontbei horien eskutan? Ba-kan zontbei horiek, ez ote daukate ba gaurko munduan gerlabidean, behuraren pean eta miseria go-riaran ondoraino sartu? Kapitalist sistima horren legeak: bereaz baka-rik axola era bestinaz nola obekie-



MUNDU BIRIBILLA

DIRUEN BEERAKADAK

Diruen baliogaltzeak, azkenengo urte onetan, maizegi gertatzen dira. Beerakada ospetsuena, oraintsu, Frantziako diruarena izan da.

Beste beerakada ospetsu bat, librearena izan zan, orain urte bi. Ingleterren diruakin batera, peseteak ere galdu zitun balioak. Galtze oien ondore kaskarrak gure sorkaldan daramagu.

Orain ikusi dezagun Amerika eta Europa Sorkaldeko diruen igitzeak:

Lateriak	Diruaren izena	1958 \$ USA 1	1969 \$ USA 1
AMERIKA			
Beerakadak:			
Brazil	Cruzeiro	138'50	4.050'00
Uruguay	Peso	13'20	250'00
Chile	Escudo	1'12	11'61
Argentina	Peso	70'00	350'00
Perú	Sol	24'49	43'32
Kolombia	Peso	8'23	11'09
Jamaika (1)	£	2'80	2'40
Paraguay	Guaraní	111'30	126'00
Kanada	Dollar	0'9641	1'0778
Ekuador	Sucre	16'66	22'43
Costa Rica	Colón	6'55	7'35

Galtze gabeak:

República Dominicana	Peso	1'00	1'00
El Salvador	Colón	2'50	2'50
Guatemala	Quetzal	1'00	1'00
Haiti	Gourde	5'00	5'00
Honduras	Lempira	2'00	2'00
México	Peso	12'49	12'49

Igotzeak:

Bolivia	Peso	11'935	11'880
Nicaragua	Córdoba	7'45	7'00
Venezuela	Bolivar	4'58	4'50

EUROPA

Beerakadak:

Islandia	Crown	32'54	88'10
Jugoslavia	Dinar	6'32	12'50
España	Peseta	52'00	70'00
Finlandia	Mark	3'20	4'20
Inglaterra (1)	£	2'8031	2'3900
Irlanda (1)	£	2'8031	2'3900
Frantzia	Franc	4'90	5'55
Dinamarca	Krone	6'906	7'532
Italia	Lira	624'60	628'60
Suiza	Frank	4'308	4'324

Galtze gabeak:

Grecia	Drakma	30'00	30'00
Noruega	Krone	7'15	7'15

Igotzeak:

Alemania	Mark	4'178	4'002
Holanda	Gulden	3'775	3'648
Portugal	Escudo	28'90	28'71
Suecia	Krone	5'180	5'170

(1) Dollarrak, £ bakoitzeko.

Lauki ontan ikusten dan bezela, Amerikan, 11 laterrien diruak beerakadak zituzten, 6 laterrien diruak: República Dominicana, El Salvador, Guatemala, Haiti, Honduras eta México, balioa gorde dute eta 3 laterrien diruak: Bolivia, Nicaragua eta Venezuela, balio gelaigo dute orain. Orain txanpon gutxiago eman bear dute dollar bat erosteko.

Europar, Islandia, Jugoslavia eta España izan dira galtze gela izan dutenak; galtze barik, laterri bi, Grecia eta Noruega'ko diruak iraun dute. 4 laterrien diruak: Alemania, Holanda, Portugal eta Suecia'ko diruak, orain balio gelaigo dute, orain dollar bategaitik txanpon gutxiago eman bear dute.

DIRUAREN SALNEURRIA

Diruaren salneurria edo interesa, aurtun, igotze andiak izan ditu.

1958'ko urtea, muga bezela artu ezker, igotze andiak ikusiko dugu laterri ospetsuenera. Ona emen laterri oiek:

	1958	1969
Interesak %'tan		
España	5,00	6,875
Estadu Batuar	2,50	6,00

Inglaterra	4,00	8,00
Austria	4,50	4,75
Belgika	3,50	7,00
Dinamarca	4,50	7,00
Frantzia	4,50	7,00
Alemania	3,00	6,00
Italia	3,50	5,00
Holanda	3,00	3,50
Suecia	4,50	7,00
Suiza	2,50	3,75

Kanada	3,74	8,00
Japon	7,30	6,25

Laterri baten, Japon'en, diruaren salneurria jexi da, beste laterri ospetsuenera oster, dirua garestitu egin da, egundokorik garestitsuen dugu dirua.

Ezari diran salneurriak, Banketxe Nagusiarenak dira.

S. LARREA

ATOMO-INDARTSU ERRI BERRIAK?

INDIA TA ISRAEL

India ta Txina-arteko mugetan egundokoak gertatu ziran joan dan uztailla-erdian. Auek 1956'garren urteko istilluen ondoren etorri dira.

1962'garrenean, India'ko lurretan aurrera jabe egin ziran txinatarrek. Auek, India'ko lurretan sartuaz, Assan'go Erriaren ordekatu jaun ta jabe egin ziran, 30.000 kilometru laukotuetan. Orrez gainera, Ladaj, Tibet'eko maillo-azpia ere, bereganatu zuten. Lur ori Pekin'ek bereztat eskatu zuan 1954'garren urtean. Lur au, 90.000 kilometru laukotu zabalekoa da.

Txina'ren eraso onek, (Txina balta Asia'ko atomodun lur bakarra); eta Pakistan'ekiko etsaioak eta Mao'ren dotriarik India'n irabazi dituan lagunak bide diraila, India'ko Gobernu, aibeste arrazaz, izkuntzez, eta erlijioz piztaturak degolarik, oso egoera larrian jarri zuan.

Alako estualdian etzuan izenpetu India'k igaz, atomo-armak ez zabalze ko tratu. Ta ori etzuan egin, Nehru'ren garaian, bere lurretarako armamto ta orren esperantzarik etzulako. Ala ta guziz ere, Kanada'k pake-lanetarako India'n errektore bat egitea eskeini zionean, balezkoa erantzu zion, baina errektore ori etzuan inongo erbestekoan begiegan jarri izan nai. Orri, erbestekoan koloni biurtzea bal-zerizkion.

Ezpei luzetan denbora galdu ta gero, Kanada'k ontzat artu zuten India'k pake-lanetarako bestetarako atomo-indarra ez erabiltzeko eman zion itza. Onela iritzi zuten plutonio sortzeko errektore; onek, urtero pare bat bomba egiteko aukera emango diote India'k.

India'k ba du uranio bere lurretan. Beste aldetik, atomo-bomba bat egiteko bidea aziguna da gaur. Onela, ba, India'k berez, atomo-indarra sortzeko etzu inolako eragozpenik, ortarako gogoia etortzen bazala. Inoren begierik gabe ta Txina'k goi-aldeetik sortzen dion etengabeko zemaia bere gain dualarik, India'k bere dirutzak dezeken neurrian, atomo-makina eta plutonioa pillatu ta ugaltu ditzake. Makina ta gal oiek gerraterako ez erabiltze, ango agintarien borondateak bakarrik iritzi dezake. Makina ta gal oiek berdin-berdin antola bait-ditezke pakerako, nai gerraterako.

India'ren antzeratsu degu Israel'go lurraldea. Onek ere, etzu izenpetu atomo-armek ez ugaltzeko itunbenik. Errialde biak, beraz, poliki-poliki, pakerako atomo-makina eraginaz, auzen bidez etsaiki biltzeko aukera arki dezakete. Ta nor daki, zer gertatuko litzakien, alde batetik edo bestetik estutuko balituzte? Auzan, pakerako sortu dituzten makina ta indarbidie oiek, gerraterako erabili ditezke.

Orta nola munduan atomo-indarra ugaltzeko ta zabaltzeko bidea eka-erri dezeken, pakerako eraiki diran atomo-eraguntzak.

GOIZ

EUSKALTZAINDIA BERE.....

(1'go orrialdetik)

Artetxe'tar Joxe'k artu zigun azkenen Karmelo Etxegarai'ren oroitza beritza. Oroitza biza du Artetxe adiskideak. Bere erriarra baitzan Karmelo Etxegarai, ta gogoan du nola ikusi zuan aurrengo itzaldia egitera Erriko Etxera zirolarik. Mogeltarrak aitzatekoak zituan izlari jakintsuak eta egun aretan alkateak erriko guziet pegoiz deitu zien beren erriarraren itzaldira bildu zitezen. Azpeti'ko Maixu naparrak bere ikasle artean zuala Karmelo, au esan omen zion mutiko argiari; «Izgonia izango aiz. «Azpeti'ko aurren jolas-lekuan jaso dute Karmelo'ren Oroitarria. Berandu goraldua, dio Artetxe adiskideak. Aita gazterik galdu zitzaion, eta familiaren premiengatik, bere bizitza asko lotu bear izan zuan Karmelo. Apala, lan arrigarrik egite, baita itzulorik gusa, Zenbat itzurre eskeiñia ari ta on bere liburu aurretan. Zenbat delaldekola lan or eta emen! Bere lumak jario erreza zuan, jario jatorra. Bere bizitza guzia Euskalerriari itzatsia. Ala aukeratu zuten gure iru probintzitate «Kronista Izendatu». Gernika'n bizitzea erabaki zuan eta an il zan, bere Euskalerriari leial. Foruak galdu ziranean, Karmelo Etxegarai'k amaika urte zituen. Etzuan oroitza mingarri ori beñiere bere burutik bota al izango.

Izlari guziak txalo beroz itoak izan ziran, beren jarduna ari zutela ta itzaldi bukaeran ere. Entzuleak berekin jaso zuten lau euskaltzain zaarren irudi ta oroitza gozo-miña.

E. N.

Tomás Eizmendi'ren Jatetxea

Zumel eristik metro gutxira, lbel ertzean par-iriz, etxe polit bat zure zal dago euskal kutsu zoragarritz. Arral, barazki, aragel eder; nai dan aukera janariz. Jatetxe au bein probatzen [duna] lalster azaltzen da beritz.

RESTAURANTE TOMAS EIZMENDI

Curva de «Chiqui-erdi»
Tel. 86-13-90 ZUMAYA

Muebles Inchausti

Laserte'n dagon etxe on ba- [tek] eskeintzen dizu ostatu, an dauden gauza zoragarriak bixitatzea prestatu. Apain, dotorez, berdifik ezta; inola ezin puskatu, MUEBLE bearez baldin ba- [zora] INTXAUSTI'NEAN eskatu.

Estación, 19

Urrutizkifia: 97580

LASARTE

JOSE ZINKUNEGI'REN OPTICA BERRIA DONOSTIA

URTIETAN LAN OIETAN OTUA

BARBUAN DANAK EUSKALDUNAK

HERRANI, 4

DONOSTIA

SALGAI

SALGAI DAUDE SAGARDOTARAKO 640 LITROKO ONTZIAK

Urrutizkifia: 12065

DONOSTIA

TUNEZ - EN
ATZERAKADA

Burgiba lendarriaren politika pragmatismoz eta moderazioz jantzia izan da bai bere herriko arazo ekonomiko eta sozialekin begira, baita beste nazioekin harremanetan.

Arabek nazioetako Tunez zen politika-giroan aurreratuenetakoa bainan Frantzia-k diru-laguntza ukatu zionetik eta orain Burgiba-k pakto bat izenpetu zianetik eusnabaz salerosketako harremanak amaituak zirela, Burgiba-k ezker-eskubiri ibili izan behar du. Huelo langileen eta sindikatoen asarreak handiak izan dira Burgiba-rentzat eta "esti" esan dio bere sozialismoari interes pribatuak gehiegi asarretuko ziren beldurrez eta atzerriko inborsoreak pixka bat bereganatzeko.

Gelditze hau Burgiba-ren pragmatismoak asmatutako egoera da edo ezinaren ondorio bat? Bester, bideko gelditune bat edo betiko geldiera?

Bainan argi dagoena, agian, hau da: arabek Tunez bereganatu egin dutela uste dute eta hau batez ere Tunez-en aldamenean dauden Libyako zuzendariak pentsatuko dute.

ANJEL LERTXUNDI

ERTIAREN
POLITIKAZKO
NEUTRALITATEA

Kenneth Tynan eta Eugene Ionesco izan zuten polemika famatuana, "antzerki politiko bat bai edo ez" Kenneth Tynan-ek baietzeko garbi bat eman zuen bainan Eugene Ionesco-k ardura-ezako postura hartu zuen. Pelomika huntan Orson Wells hiruratu zen "Observer" aldizkarian gauza hauek idatziak:


"Nere sora ahulari erresistituz" askatasun hitza erabili dudalako, ez naiz barkamena eskatzea auzartzen. Bainan oraindik ez gero hitz hauekin aspertu. Mundu guztian askatasun-era asko binkatutak dira eta era hauek denak, politikaren gibelat jotzea bezala, politikaren batzuk dira. Politika ez da eritaren aurkakoa, neutralitatea baizik, tragediaren sentidua kentzen bai digu. Eta neutralitatea ere politika-postura bat da eta ondore argiand "konzentrazioko zelaetan" daukagu.

JOXEMI ZUMALABE

ERA-BERRITZEKO

Oraingozko aldaketa Vergara kalera

ERLOJU TA BITXITEGIA



Vergara, 11 - Urrut. 17751 - Etexkoa: 22700 - DONOSTIA

ORMAZABAL - DAR DUNIXI

ETXEGINTZA TA ETXE-TXUKUNKETARAKOAK
URALITA ORDEZKARIA

TOLOSA

Urrutizkiñak

Etexkoa 65 19 60
Landolako 65 19 33

URRETUXA

Urrutizkiñak
Landolako 67 17 84

ERAKUSTOKIA: Tolosa, n - Zumalakarregi, 7ºn.

BIDEAK

Sobietarren komunismoa, denbora askoan, izan da munduko alderdi komunistaren eredu bakarra eta bere hitza zen errespetu guztiarekin entzun eta sinisten zen dogma.

Hala Hego ameriketako herriaren alderdi komunista sobietarren menpean sartuak izan dira. Cuban ere Batistaren denboran alderdi komunista zalitasun askoren ondoren E.S.S.B.-ko dialektikara itzuli zuen eta beren zituaziora aplikatu.

eta Cubako alderdi komunistaren diferentziak, ez dira bata besteak baino gazteago edo zaharago diralako, ez eta batzuek oposizioan besteak indarraren jabe dalako, baizik bata eta besteak marxismoa ere berdinan ulertzen ez dutelako.

BAKOITZAK BEREN BIDEA

Orain bi urte Bolivian Guevararen heriotza gertatu zanean, Hego ameriketako alderdi komunista ortodoxoek gerrilari buruz zuten iritzia in-

ko edozein herrietan sozialismoa sortzea, U.S.A. eta E.S.S.B.-ren harremanak desekilibratu egingo litzakela, dio E.S.S.B.-ek.

Cubakoek beste herriak sozialismoa lortzea nahi dute, berak bizi duan bakardadeak laguntza izateko eta gutxi ajola zailo itxurazko pake baten ekilibrio.

Beren esperientziak ondo ikasi dute U.S.A. eta E.S.S.B. arteko errela-

ez egiten ez dualako, zeren ekin-tza honitako potentzi indartsu bat izateak erabat baldinpeztatzen du.

Cuba, Ipar Vietnam eta Ipar Co-rek etorizuna potentzi handien eskutian ezin dezaketela ipini ondoko ulertu dute. Beraz Habana, Hanoi eta Pjonghing herri hauen hiri nagusiak oso alkatuak daude, sozialismo berrien elkartasuna eta askatasuna errespetatua izan dadin.

Kastrismoa iraultza egin ondoren Fidel, Batista bota zuten organizazio eta alderdi guztiak, elkartzen saiatu zion. Ez zela herriaren indarra zentzu gabeko etabidetan herriaren indarra ahuldu behar, Castrok zion.

1962 urteko epailean Fidel Castrok unearra bere eskutian hartu zunean gauzak aldatu egin ziren. Escalantearen denboran espetxetutak izan ziren preso politikoak askatu zitun eta guztiz aldatu harek eskolatan sortutako pedagogiararen programa, teori eta doktrina gehiegi-kin antolatuta zeudetzen.

Castrok dio: "Teoriaren jakintza eta praktikaren ezagueraren parean eraman behar ditugu. Idei astraktoak ez ditugu inoiz buruz ikasi behar. Goiz goiztik gizona ohitutzen hasi behar dugu produktzioaren tresnarekin. Salatuko gera ere herriak ez borkadura baten bitartez, baizik eta beren kontzentzi osoarekin bere burua jaso dezadan".

AMAI A LASA



E.S.S.B. eta Hego ameriketako komunismoaren diferentzi guztia zen; Batlan Rusoz, besteak kastelanaz hitz egiten zela.

Castroren etorrezakin Cubako komunismoa erabat aldatu zen. Cubako jausi ziren beren komunismoak E.S.S.B.-ren komunismoaren itzul gai bat besterik ez zela, atzerriki eramandako azairekin sortu zirela. E.S.S.B.-ren menpean zeudetela eta beren iritziek, ekin-tzak, jokaera guztia Moskutik zuzendua zatorrela.

Orain Cubakoek bide berriak jo dute, Hego ameriketako alderdi komunista ez dira ados berakin, ez, denaz ez dute uste gerrila gauz bide jatorra denik iraultza lortzeko, alagoa oraindik zirkunstantziak heldu gabe daudela gerrilaren ekin-tzarako.

Herri hauen alderdi komunista

dartu egin zen esanaz, gerrilaren denbora oraindik heldu ez zela. Orduan 1953 urteko garagarriaren hogeitaz seieen Fidelek beren laguntzaileekin Santiago de Cuba-ko Moncada kuartela hartzeko ibili ziran, alderdi komunista postura berdinan zeudetzen.

Beren burokrazi inobilista justifikatzeko ez dute gerrilak ez direla onhartu behar; baizik ez direla nahiko heldu zirkunstantziak gerrilak sortzeko.

Alderdi komunista hauek oraindik Moskutik aginduak betetzen dituzte.

E.S.S.B.-koeri ondo etortzen, Brasil, Venezuelako eta Hego ameriketa-

zio hоек ez erit elkartzen ez ditola, zeren ekilibrio hori eta guztia U.S.A.-ko gobernu Cubako sozialismoa zantpatzen ari da; komertzioan Cubako produktorei boikot eginez edo C.I.A.-ko gizonak herria nahastea bialduaz.


HERRI AHULAK ETA INDARTSUAK

Cuba, Ipar Vietnam eta Ipar Co-re, hirurak sozialismoaren bide berriaren sortzaileak eta inoiz potentzi handiaren menpean ibili nahi ez duten herriak.

Hirurak arzo berdin haunitzekin, ba dakite E.S.S.B. ez ditula beren arazoak erabakiko, herri haundi honen sozialismoaren elkarreagaitik

Baserriaren alde

EUSKAL ETA ERDAL

Caja de Ahorros
Municipal de San Sebastián

Banen baneko azyak
Ongarri ta abonoak
Belar Zuloak

Erosi edo berritzeko diru
aurreratzea

Baserri, lur-tresnak ta abar

Torelavega ko Perira joan
etorriak.

NORK KUKURURUKU!!!

OLLARRAK

OLLOTEGIAN?

...Ez. FAGOR,ek

sukaldian

NAZISMOA BERRIZ,
BAINA EZ BAKAR-
BRIK ALEMANIA

Adolf Von Handem-ek zuzentzen duen partiduri "neonazi" esan ohi zaio, eta nahiko arazoeikin, batez ere "neo" delakoari, partidu huntan gehienak ez bai dute gerta izi.

N.P.D.-ko ideologia nazi da eta funtsean puntu hauekin finkatzen da: atzerriko kapitalaren aurka, betiko tradizioaren alde, hirieko zibilizazioaren eta ezkerreko indarren aurka, herriaren komunitatearen (Volksgemeinschaft) alde. Baina nazismoak ez du bakarrik auzpegi hau ta inportantea da kontuan izatea munduan dagoen nazismoa ez dela bakarrik partidu huntara laburtzen. Izan ere, Kiesinger kanzelerra gozla artean Willenstrasse-ko (propagandako ministerioarekin harremanetan) jefet inportantea izan zen, eta Gunter Grass idazlearen erabera ez omen du debozio hori utzi zenbait diktadoreekin harreman onak dituen. Schiller kristau demokrat eta sozial demokrat itunaren ministroa nazi izandakoa dugu, bainan diotenez egun damutua.

Dagonian, Frantzia-n Napoleon-i buruz egindako omenaldian Frantziako maioria txaubinismoan abertza-lekerian kasik nazismoan jausi zen. Bai gaultistak, bai alderdi komunistaren aldizkaria, "agent magistral du devenir humain" dehitu zion. Gaultistak "europatarra" edo "Napoleon bakezalea". Frantzia-ko txaubinista zital haueri galdetuko diegu, zergatik ez ahaszu Hitler-en gogorierak zuek Napoleon-ekoak ahas-tu dituzuten bezala?

Bertrand Duclos Kristau-sozialistak dion bezala "aurten frantziarrak «Saint-Napoleon» festatu dute, laister deustarrak «Saint-Hitler» festatuko".

Nixon, Kiesinger, Pompidou eta beste askoeri tankera huntako fraseak entzun dizkiegu "gure herriaren kaleak ez dute bakerik. Unibersitateak estudiantek iraultzez beterik daude. Komunistak gure herria sakabanatu nahi dute. E.S.S.B.-ek bere indar guztia erabiltzen dute, gaitu, errepublika arriskuan dago. Bai, arriskua kanpotik, arriskua gure herriaren baitan. Bakea zaindu behar dugu bestela gure nazioak ez du bizirik izango".

Fraxe hau ez da Nixon-ena, frase hau Hitler-ek 1932-an egindako hitzaldi baten zati bat da.

Gaurko munduaren giroan uste dugun bainan nazismo gehiago dago.

ANTON SANTAMARIA

Kristautasuna eta ageriko gurtza

MUNDU SEKULARREKO TEOLOJI BERRIA

Mundua sekularizatzen ari da. Erlijioak gero ta giro gutxiago dauka gure gizarteak. Kristautasuna, erlijio jantzia daukanez, desmifikatzen ari da. Ta orain? Nola hitzegingo diogu Jaungoikoari mundu sekular batean? Nola aitortu Jesukristo Jauna dela? Zer egiteko izango du Elizak erlijio gabeko munduan? Nolako elizkizunak eratu? Nolako liturgia erakutsiko? Ona emen teologo berriak egiten ari diran galderak. Londres-en anglikanoak gotzai izandako Robinson-ek, mundu sekularrari dagokion teologia probatzen saiatu da. Kristau askoentzat ekinaldi ausarta izan da, baño erlijio gabeko gizonentzat mentalidade egokia. Gaurko gizonai elizgiroa edo erlijio-hutsa, arlotea deritzale. Jaungoikoaren aurpegia ezin dute arkitu, gatzagabeko elizkizun oietan. Aien buruauzteak, munduko errealdadeak dira. Izan ere, gaurgore hegiako santutasuna ezin dezakegu mundutik aparte biltatu, munduaren erdian eta munduarekin batean baizik. Gauza asko dira Eliza mundutik aldentzen dituztenak. Danetan gaitz ageriko gurtza edo kultoa dago. Zerbait ikusirik bai ote ta kristautasunak, erlijioari dagokion gurtzarekin? Nolako mallan jarri beharko degu ageriko gurtza Elizaren ebanjelizazioan? Galdera oietaz gogoeta batzuk egin nahi nituke.

GURTZA TESTAMENTU ZAHARREAN

Kultoa, Jaungoikoari, olako lekutan eta alako egintzak gurtza ematea da. Bera gurtza gutzien Jaun ta Jabe dala ta. Gogoeta hau ez degu hain zuzen Rebelezioan arkitzen. Testamentu zaharrean bazuten ageriko gurtza eta larunbata betebeharrak, baina ez guk ueste bezin garrantzitsu. Sei hitz agertzen ditugu Testamentu Zaharrean kultoa adieraziz. Hitz oiek gurtza hutsa baño beste Jaungoikotasun bereziagoa igartzen dute, hots, obeditu, serbitu, lagun urkoari lagundu ta abar. Noiz edo noiz, gurtza hutsa azaltzen bada, orok bezela edo sasi-jainkoal daria da. Yave Jaungoikoak ez ditu nahi gurtzaleak, serbitzaleak baizik. Testamentu zaharrean nahi zuten gurtza, Isaiasen hitz haueitan azaltzen zaigu: «Nik malte dutan baraua haue da: gaitzakerriko lotarriak moztu, uztañri okerrak zuzendu, gilitzak eta oinperatuak libratu, gosedunari ogia eman, larru-gorria estali eta anaikin atsegina izan.

ETA TESTAMENTU BERRIAN?

Jesukristo ageriko eta legearekiko kultoa zuzentzen ari zuen. Berak hots, egin zuan Berri Ona, Berak erakiti zituen sakramentuak eta heriotza bera, elizatik kanpo egin zituen. Elizara joaten zan, baño ez beti oitzi egitera, baita zigorkada latzak ematera ere. Eta Kalbarioan hil zanean Jerusalem eliza lur jota gelditu zuen. Kristorentzat mundu guztia, santua zan eta Aitari atsegin egiteko egokia.

Apostoluak eta lendabiziko kristauak egiten zituzten kristau-batzarrak ere, arlotu xamarak irudituko litzaizkiguke gaurko gizonai. Paulo apostoluak erita egiten zien, batzuk asebate eta beste gogoz gelditzen ziralako. Pedro apostoluak berriz, ordiki ez ziralaz izaten baieztauta behar izan zuan. Gure elizkizunak edo gure liturjiko antolatetarik baño, futboleko partiduko gelaio zuzendile ueste dut kristau-batzar aiek. Nola estutu degu orduan, kristautasuna eliz-elizkizunetara? Nola korde-gabatu zaigu gure elizetako gurtza-giroa?

ITXURAGABEOA DA

Edozeñi gertatuko zitzaion ni esatera non hau. Ibillaldi zoragarri batean, bazkaldu ondoren, pozik eta kantari ginen. Danak analak baño batuego, irripaz eta poz-zori batean, Alako batean hots bat entzun genduan: gogozan elizara. Ta joan ginen, baño nola? Bete besteagandik sakabanatuta, ikilik eta serio, kanta triste eta sentimentalak abesteko behartuta, ez gogoz eta ez pozez. Baina hain iluna ote da gure Jaungoikoa? Gaur egun, gure elizaren kultoa indargabetatzen dago. Liturgia pitinka pitinka aldatzen asita dago eta ez dakigun norano jo beharko dun. Gauza bat dago garbi: oraindigo gizonen errealdetatik oso urrun dagoela. Kulto egokia edo aldrebesa badi-rudigu ere, kristautasunen mezua sakonagoa ta galgarriagoa da. Mami hori biltatu arte, ekin dezatela mundu sekularreko teologo berriak.

HITZ GURTXTAN

Goiako esanakin ez dedilla iñor nabarmendu. Ez nahi nahasketak sortzeko asmotan, tabú gisako oitirak argitaratzeko asmotan baizik. Amaitu baño len, erakapsen garbi batzuk utziko ditut:

- 1) Kristautasuna ez da ageriko gurtza bakarrik eta ageriko gurtza edo kultoa ez da kristautasunean beste gauzak baño garrantziagoa.
- 2) Elizako elizkizunak eta liturgia Jaungoikoari bat egiteko egokiak dira eta Bere grazia gureganatzeko beharrezkoak.
- 3) Ageriko gurtza edo liturgia ez du iluna eta memela izan behar, aleia, jotorra ta errotarra baizik.
- 4) Elizkizunak munduko errealdetatik apartzen bagaituzte eta gizarkeko erresposabilitetan moteldu, barrero arra jota daude eta zuzendu edo utzi egin behar dira.
- 5) Kristautasuna librea da Jaungoikoa mugia batetik bestera, edonoiz edo edonola, gurtzeko. Jesukristok nahi duan bezela, gogozko eta egiatzko gurtza elegia.

FELIX URDAPILLETA

LITURGI - GAI

Gure «Pater Noster» ekumenikoa (II)

Estibalitz'eko gure Liturgi-lanetan, aurren-aurren, lenengo Eskabidea euskeratu degu: «Santu izan bedi zure izena».

Bañoñ ori egitean, or gelditzen zuan aurretik, oitotzaren sarrerako Dela: «Pater noster, qui es in coelis».

Ori izan da bigarren egin degu-na.

Ordu ta erdi egin ditugu lenengo Eskabidean. Gairik zalantzuenen ark bait zuan. Baiñan sarrerako Delak ere izan du berea.

Izen esan-n aitari begiratuaz, qui es in coelis azeritu degu lenengo: «zeruetan zaudena», orain arte... Jaungoikoa, ordea, ez dago egon; beti ari da. «Zauden» ori aldatu bearra zeron, beraz. Baiñan «zeruetan ari zera» ere, ezin esan genezakean; ez latiniak ez grekoak ez bait dio olakork, «izan» baizik: ots, «zerana»; Bayona'koen esaserari begiratuaz ere, «zerana» genduan egokien; eta «zerana» ipini degu. Eta «zeranaren» aurretik, «zeruetan», eta ez «zeruan», zeru... zera, itz-joku arintxo gerta ez dedin; eta grekoz eta latinez ere in coelis, en tois ouranois bait dago.

Norbaitek galdutu du, ea, «zeruan zeranaren» ordez, «zeruetatik» bakarrik naizko ez ote litzaiken, «zeruetatik gure Aita»; alegia grekoz ere ala dagoa... Bañoñ erantitzen zaio, ain xun, grekoz ere, latinez bezez-laxe, ba dagoa or, «zeran» orren kontuko zerbait, elipsis baitan pean ezkurturik ezik: ots, o (on) en tois ouranois = el (ente) en los cielos...

Euskeraren aldetik begiraturik, berriz, beste problematxo bat azaldu zaigu. Del ointan bertan: joskerari dagokion problematxo: «Aita gurea», ala «Gure Aita»? «Gure Aita», zeruetan zerana? ala «Zeruetan zeran gure Aita»?

«Aita gurean» zenbait matiz sentimental ikusi arren, ez diogu oniritzi joskera orri; matiz ori, bear bada, euskelgi gutzietan ezaguna ez dalako, alde batetik, eta, baitz ere, oitotzi ointan lekuri asko ez lukealako.

Gainerakoan obeto iritzi diogu, «Gure Aita» ori, delizat, aurre-aurrean ipintzeari, oitotzi-izara obeto nabarmen dedin; eta ondoren, «zeruetan zerana», beste edozein gain-erantzi ere ondoren ipintzen degun bezela... Bayona'koak leendik ere ola egiten bait dute...

Beraz, Dela, onela: «Gure Aita, zeruetan zerana».

Goazen bigarren Eskabidera. Adveniat Regnum tuum.

Orain arteko formulaetan, «gugana» bat erantzi izan zaio «etorri», erderaz venganos, veng a nosotros bezela. Latinez, ordea, eta grekoz ere, ez bait da olako gu'rik, adveniat eta elzato soil-soilik baizik. Orreagatik, guk ere «gugana» ori

kendu egin degu, eta, orrekin batean, baita beste gu-kutsu guztiaik ere.

Eta betor'en orde, beste izkel-gial amore-emateagatik, «etor bedi» ipini degu; eta ola, paralelismo bete-betean, ederkito iru «bedi», errenkadan gertatu zalzigu: izan bedi, etor bedi, egin bedi...

Urrengo itz Regnum'ekin, lentxuago sanctificetur'ekin gertatua be-rra, gertatu zaigu; latiniatik artu bear izan degula Erreinu (Bayona'koak Erresuma). (Lau itz artu ditugu latiniatik: santu, zeru, erreinu eta tentaldi). Ortara baiño lenengo, ordea, naastu ditugu ortara, aginte, erregetza, ala etab. Baiñan gutziai utsi-antza arkitu diegu, Regnum orrek or esan nai duanarentzat. Itz oiek abstraktotxo dirala, alegia; or, berriz, ezur eta mami dan zerbait esan nai bait da. Erderaz ere, ez omen da Reinado esaten, Reino baizik. Itz bitan: Regnum ori ere, sanc-tus bezela, esan-nai biblikoz bete-bete anpatua dago; eta olakotetan, leendik oitotako itzal etzea dala se-guruen eta bidezkoena.

«Etor bedi zure Erreinu», beraz. (Bayona'koak Erresuma, lau silaba-tan).

Iruarren Eskabidea: Fiat voluntas tua... Voluntas ori, eta grekoen ze-lama esateko, guk lau bide ditugu: nai, gura ta gogo... eta borondate. «Nai», giputz; «gura», bizkaitar; eta, bion bitarteko, gogo ta borondate. Gogo'ri eldu diegu, batasunari amo-re eman bearrez: ez giputz, ez biz-kai, bion bitarteko gogo baizik. Borondatek, latiniatik etorriaz gainera, gogo ona, nai ona esan nai bait du, ez «nai legetari», Erregeri dagokion bezelako.

«Zeruan bezela, lurrean ere». «Ze-ruan eta lurrean» soilik esan zite-keala? Baiñan leku ontaroko, labur-txo eritzi diegu, alde batetik; eta «bezela» ori ez dala, nai-ta-ez, ber-dinketako itz, beste aldetik, «zeru-an eta lurrean» aren naiko antzeko ta berdin baizik, «ere» bat ondotik daramagianeaz batez ere... «Zeruan bezela lurrean ere» ipini degu.

«Bezela», bizkaitarrak ere ontzat eman digute, beren «dege» on or-dez amore-emanaz, kanturakoan si-labaetan berdin gaitzen: bezelak, iru bait ditu, eta lege'ek bl...

Laugarren Eskabidea: Panem nos-trum quotidianum da nobis hodie. «Emaigu zu gaur, egun ontako ogia».

Esan genezakean «iguzu gaur», Bayona'ko'kin batean; baiñan biz-kaitarragatik, emaguzu (emoigu-zu) autatu degu.

Leengo eguneroko'ren orde, «egun ontako» ipini degu, grekozko semeon (latinezko quotidianum) «eguneroko» bezain «egun ontako» esan litekealako, alde batetik, eta Jesus'ek beste leku batean, bigar-koaz ez arduratzeko esaten digula

ko beste aldetik; «egun ontakoa» beraz. (Astiro eta ondotoz begiratu ondoren).

Boskarren Eskabidea: Dimittite nobis debita nostra...

«Barkatu gure zorrak, guk ere gu-re zordunal barkatzen diegun beze-la». Olaxe, «barkatu» soil-soilik, aditz laguntzailerikan gabe; «barka-gizkigutzurekin» luzatu gabe, ale-gia.

«Guk ere geren zordunai» ipini gertakean arren, geren'en orde, gure naiago izan degu, ere geren ortan e lau aldir e-e-e-e ez esate-rran.

Seigarren Eskabidea: Et ne nos inducas in tentationem.

«Eta ez gaitzazu gu tentaldian utzi».

«Tentaldi ta «utzi» orrek, nai-ko lan eman digute. Batetik jakin bear, tentazio ori Jaungoikoaren aldetik zer dan, eta zer tentaldi dan, Jesus'ek or adierazi nai duana (Parusi-au-rreko Tentaldi audia, alegia); bes-tetik ikusi, zer itz dan, ori euskeraz adierazteko egokia.

Nola-nai dala, berriz ere auxe ar-kitu degu: santua eta Erreinu be-zelaxe, itz esan-nalez anpatu-ana-pua dala tenta au ere; eta itz orren esan-nai guztiaik batean bideko-itzik argiena ez bada ere, seguru-na, beintzat, berriz ere latinezko tenta degula, aldi ondotik erant-riki: «tenta-aldian». Urretxuako ba-tasun-saiozaleak ere berdin ipini bait zuten.

Azteneko utzi orrek ere ba du be-re zailtasun. Ba dirudi latinezko in-ducas'ek, «sarrerazi» esan nai dua-la (berdin, baita, grekozko eisenen-kes'ek ere); baiñan ba da, itz ori goxogo aditzen duan biblizalerik: utzi (abandonar) ere esan litekeala dionik, alegia, eta, izan ere, egokia-gu dala ola esatea; iritzi orri elduaz, beraz, guk, «tentaldian utzi» ipini degu.

«Utzi gaitzazu»-ren gaitzazu ori kendu ere gertakean, eta ez gu tentaldian utzi esan' aditz laguntz-ailerikan gabe, «barkatu gure zo-rrak», esan degun bezela; baiñan, bi aldir bide beretik ibilli gabe, ritmo beteagokoa iritzi diegu utzi aditza-ri, gaitzazu laguntzalea erantsita: «Eta ez gaitzazu gu tentaldian utzi», olaxe, hyperbaton apurtu bat tar-tean duala...

Zabpigarren Eskabidea: Sed libera nos a malo.

«Baiñan atera Gaitzetik».

«Gaitz» ori zer gaitz dan ikusi on-doren (Parusi-aurreko Gaitza ta Gaizkillea dala, alegia) aizenik, ez-ta-baida askoren ondoren, Gaitza, olaxe, letra audiz idazteari iritzi diegu bidezkoen.

Aditzaren forma, berriz, laguntza-llerikan gabe.

LEKUONATAR MANUEL'EK

FUNCOR, S.C.I.

BENETAKO BASERRITARRAK BEAR DITUTZEN MAKINAK

BIRINTZALLE - ERROTA - NAASTALE
ZEERRA - URAGA - URASKA

EUROPA'KO AUERRERALEDEUNI'K ONENAK,
AMENGO NEKAZARIENTZAT.

ADI TA OROI EZAZU

FUNCOR

AZKAR BEZIN ONDO

ELORRIO

Vizcaya, 114

GIZARTE-LAGUNTZAILLEEN IKASTETXEA

(ESCUELA DE ASISTENTES SOCIALES)

(Donostia'ko Aurrezki Kutxa Munizipalaren)

Gizarte-Eraguntza.

1969-1970'go Ikastarorako izena emateko epea, Agorillaren 15'garrenean asko da. Goraberak jakiteko, idazkaritza irikita egongo da astegunetan, goizeko 10' tatik arratsaldeko ordu batak arte.

Etxea: Villa «Itxas-Gain» (Aldapeta)

Urrutizkifia: 1-03-04.

DONOSTIA

EUSKAL ERRIETATIK

errenderi

URRE-EZTIAK

—Urre-eztiak, bai, bainan lanean. Berrogei ta amar urte lanean; erre esaten da, igarotzea baino erreago. Bada gure adixkide, Joxe Lete'k oraintsu bete ditu eta zar-sari edo erreitiroa artu.

Merezitako atsedena artu dez, Joxe, eta urte askotan goza dezazula.

—Orobat, praille bezela urre-eztiak osatu berria da. Kaputxino'tan sukaldari dagon, Diego Anaia.

Berrogei ta amar, otioiz eta lanean, Yainkoa eta komunitadea serbitzen jori meritu!

Orra or benetako komunista, asperzeke lan egin, bear duna bakarrik jaso eta beti pobre. iZorionak Anai Diegol Zuk ere sari on bat merezi dez. Ez dakit mundu ontan lortuko dezun, bainan bertzean lortuko dezula ziur nago.

«EREINTZA» KOAK ZIZURKIL'EN

«Ereintza»ko antzeslariak Zizurkil'en izanak ditugu.

Bertako eleiz-aretan antzerki-jai polita eskeni zuten, Toribio Altzaga'ren «Osaba» antzestuz.

Tartein, Erregel eta Xabier'ek, «Xenpelar»en bertso politik abestu zituzten eta denak, antzeslari ta abeslariak txalo ugari jaso zituzten.

KOLDO MITXELENA PARIS'ERA

Bai, urte baterakó, gure Koldo Paris'era dijoakigu. Bere irakasle lanetara, jakina, bainan nora uste dezute? Mundu zear izen aundiko dan Sorbonne Ikastetxe Nagusi edo Unibersidadera.

Lenengo errenderiara izango da, dudarik gabe, orrelako Ikastetxe batera profesore bezela dijoana.

Asko poztien gaitu gure laguna orrelako mailetara igotzea; ez da noski nolabaitzko izkuntzalaria. Alara, gelo poztuko gifaen bere jakinduria bere soterrian irakasteko erosotasuna balu.

ANARBE

beasain

EUSKERA-REN IRAKASKETAK

Orain arte O.A.R.G.U.I. elkarteak, antolatzen zituen ikastaldi batzuek, Euskera ez zekitenentzat, Hiru urtez jardun dira lan horretan. Azkeneko urtean ordea, talde horrek berak Alfabetatze lana bere gain hartu zun eta bi motatako irakasketa hauek alkarrekin zer ikusia izanik, biak Alfabetatze talde honen-pean zuzentzea erabaki zuten. Gainera elkarte baten egitekoa baino zabalgago zala konturaturik, Alfabetatze Batzordearen izenpean batu dira hizkuntzaren alderako ekintza guztiak. Beraz datorren hilaren ikastaro batzuek asten dira, Euskera ez dakitenentzat. Hil honen 26-ra etan «Club de la Amistad» deritzon elkartearen izenpetu leike ilunabarreko 8-tatik 9-tara, Ikastaro hauetan 14 urtetik gorakoak bakarrik izenpetu leizke. Aurreko urteak erakutsi dutenez, haurrei eura dabilzan Ikastetxeetan erakustea komeni da. Ilunabarrean eta helduen artean, ez bai dute behar inbuit arazoitzen. Beraz guraso zeratenok, eskatu Ikastetxeetako zuzendariak, egunez eta ikasteko ordu egokietan Euskera irakastea. Ilunabarreko osagarri

hauek baino frutu gehiago eman dezaten.

Euskaldun zeratenok berriz, aurki izango dazute Bigarren Alfabetatze saioa, mahar edo gazte (urteak ez dute kontatzen honetarako), jo guztiok ikastaldi horietara. Oraindik antolatzen ari dira baino Egu-berriak alderako guztia prestatuta egongo da. Ekin eta jarrai!

MURUMENDI

goizueta

Urtebete laister gure Artzai onen D. Eugenio Etxenike ill zitzaigula, illabete onen 22-an. (G. B.).

Ala ere, naiz egunak joan eta egunak etorri, ezin etsian bizi gera. Etitun alperrik egin izan ere ogei urte luze gure artean.

Ongi irabazia zuan gure eskerron eta maltasun beroa. Bai orixe.

Gaurko goizuetarik bizi dan artean ez degu aztuko noski.

Iruña'ko «Principe de Viana» izeneko illerokoan ona zer zion bera ill zan artan. Ondo gordea daukan illeroko uraxe. Amaikatzotan irakurri oi det.

«Izleri biotz aundiko, musikalar trebe, euskalzale egiazkoa, langille asperzeiña, leuna izakeraz, artuemanetan zintzo ta goxoa... ori ta gelago zan galdu dugun Artzai Eugenio Etxenike Itzagarri ura.

Orain iru urte eman zen emen Mixelo Santu eder-eder bat. Amar eguneko. Azken-itzaldia egin ondorean, eskerrak eman zizkan erriari alako poz aundia bere artzai-biotzari amar egun aietan eman izanduz ziolako, guztiok etorri eta arretarik aundiaz-mixio-egiak entzun zituztelakoz. Eta nere aurrean besarkatu zuan Alta Zubilaga jesulta mixioemalilea, bere bizitzako poz aundienetako bat egun aietan Mixioez eman ziolakoz.

Ez da arritzeko, bada, erri osorearen samintasun eta etsieziña».

Aski da gaurko. Lerro oen bitartez gure Artzai zenaz oroitzen gerala esan nai nuen. Besterik ez.

Eta gure asteeroko «ZERUKO ARGIA» onen bidez, urteurren inguru ontan, berriz ere dolunilik biotzekona bere sendidei, batez ere gure artean egondako bere anai D. Joan maiteari, eta Goizueta erri osoari.

Otoitz bat, arren, irakurle, gure Artzai ezin ohea izanduz zanaren alde.

ERRIZALE BAT

ARIN, S. A.

ELEKTRIKA-ANTOLAKETA GUZTARIKOAK — ABIADA-ALDAKETAK

INDARRA ZUZENTZEKOAK — SOLDIATZEKO BEREZKO MAKIÑAK.

PERTZAGINTZA-LANAK.

Urrut. 691343-4-5

IRURA-TOLOSA

I R U R A

J A I A K

Done Mikel goi aingeruaren ome-
nez erriko Ayuntamentuak, gaztedia-
ren laguntza, eratutako jaialdiak.

Agorrak — 27 — larunbata
ilunbistan — Kale-jira, Buruzar
eta Gizaundiakin, Tolosa'ko txistu-
lariak alaitzen dutela. Bat batera ez-
killak eta pumatekoak jaialk adie-
razten.

Agorrak — 28 — igandea
9'00. — Ordizia'ko «Laguntasuna»
musikalar taldeak, kale-jira.

11'00. — Meza nagusi ondoren,
«Laguntasun» taldeak, leen jardunal-
dia.

17'00. — Tolosa'ko «Udaberri»
dantzari taldearen saioa.

Ondoren — Dantza soñuak, Tolo-
sa'ko Ayuntamentuko txistulariak
eta Beatiabar'ko «Los Zafiros» musi-
kalariak txandatu.

Agorrak — 29 — astelena
(S. Migel)

7'00. — Tolosa'ko txistulariak, ka-
le-jira.

10'30. — Meza Nagusia, erriko
Ayuntamentu buru dala.

12'00. — Tolosa'ko «Leidor» abes-
taldeak, kanta saioa ta ondoren er-
riko dantzari txikien ekinaldia.

17'00. — Erriko dantzariak, aures-
ku-dantza.

17'30. — Txantxoaren ara-onera
(desfile de disfraces).

Azkenik — Aspertzerario dantza
soñuak, «Los Zafiros» musikalariek
eta Tolosa'ko txistulariak alaitzen
gaituztela.

Agorrak — 30 — asteartea
Gazte festa — Erri osoari jira ta
bazkaria «Aizpurua'nean».

17'30. — Asto laxterketa.

Ondoren — Dantza soñuak, erri-
ko txistulariak, Xabier Sarasa buru
dala, ta «Los Zafiros» txandatu.

Urrillak — 4 — larunbata

17'30. — Ume festa: eltzete auste,
zaku barruan laxterketa, txokolate
alkarri ematea baino ikusteke, loko-
txa biltzea, etb.

Ondoren — Dantza soñuak erriko
txistularien eta «Los Zafiros» gain.

Urrillak — 5 — igandea

7'00. — Xabier taldeak bere txis-
tu soñu alaiakin esnaraziko gaituzte.

10'30. — Meza Nagusia, erri ta
agintarik.


12'00. — Pelota partidua ta erriko
dantzarien saioa.

Alsalde ta gau — Dantza soñuak,
erriko txistulariak eta «Los Zafiros»
txandatu. Eta bukatzeko kale jira
nagusia.

FESTA JARTZALLEAK

—Maria Jesus Laplace ta Juan
Jose Lasa ezkonduko dira (Jk. I.)
gure eleizan agorraren 22'n. Eztaiak
Laskibar'ko ostatu nagusian eta bi-
zi izaten Beasain'en jarriko dira. Bi-
koteari emendik zorionak.

—Tolosa'ko Kosme ta Damian



Santuen gazotegian arkitzen de Agustin Agote, gure errikoa, egu-
neko lana bukatu ondoren, motoan
etxera zetorrela, miña artuta. Naiko
lanakin egon ondoren orain obeto
arkitzen da. Obasuna jarraitu dedi-
lla ta lenbaitlen osatuta etxeratzea
opa diogu.

“ECHESA” Lantegiak

Moto-erreduktoreak — Moto-erreduktoreak galgarekin. — Neurze-
ko kutxak, guztitariko azpillentzako atzapar leunak. — Azken-gabeko
koroidun erreduktoreak. — Abiada-neurtzekoak.

Urrutizkiña: 691361

IRURA-TOLOSA

Gipuzkoa

Aizpurua

BAR - RESTAURANTE

TOLOSATIK 3 KILOMETRO.
IRUN-MADRID-ERAKO BIDE NAGUSIAN

Urrut. 691353

IRURA (Gipuzkoa)

LANTEGIAK

EMUA, S. A.

Urrut. 691384 - 85 - 86 - 87 - Apart. 9

TOLOSA

(Irura)

Makina egintza ta prestamenak:

Paper-Industriarako Makina

berezikiak batez ere

tolosa

NAZIO ARTEKO PERRETIXIKU-
ZALEEN BATZARRA
1969'KO AGORRAREN 30'TIK,
URRILLAREN 5 ARTE



Tolosa'k ba du lendik Gipuzkoako Erri-buru aldean. Oraingo antan, «Perretixiku-Eria» ere jarriko diote izentzat. Benetan irabazi du, izan ere, bost urtetan izen ori. Boskarren aldiz bait-dator Perretixiku txapelketa antolatzen.

Eta txapelketa aukerageroa da ederrago ta aberatsagoak agertu zaizkigu, alajaina. Lenengo txapelketa 74 perretixiku ta onymota agertu ziran leiaketara. Boskarrenean, berriz, 261 mota azaldu zizkiguten, igaz.

Gorakada au ikusita gero, Tolosa-ko Saio ta Turismo Etxeak, eta bertako Kasinoak, elkarren leian antolatu dute aurtengo txapelketa. ASTE OSOAN irauango du aurtengo txapelketa. Agorarren 30'tik Urrillaren 5 arte. Agiri denez, selgarren leiaqueta onekin, Tolosa txapela jantzi bear du. Leiaqueta, probintziako mugak urratu ta mundu guzira lrtan da orailgoan.

Bide batez, sei egunetan beste ekitaldi batzuek ere borobilduko dute txapelketa onen egiteko. Ala antolatuko dizkigute, itzaldiak, zine-irudiak, argazkiak eta abar. Onenbeste aldetatik, Tolosa'k benetan irabaziko du bere izen berria dan: PERRETIXIKU-ERRIA.

uarte-arakil

Agorrillaren 28'garrenean, Uarte-Arakil'go erria San Migel'en jaietan sartuko da. Añalar-mendi elkariea, Uarte-Arakil'go Aintamentuaren ba bespean dabil jai-jolasak antolatzen. Ona emen jaietako jostaketak:

Erriko Pelota-lekuan asiko dira jaiok. Agorarren 28'an eta arratsaldeko 5'etan. Ordu eta egun orretan, AUR AIZKOLARI TA GAZTETXO AIZKOLARIEN LENENGO TXAPELKETA. Leiaqueta ontara Bidasoz onuzkaldeko Euskalaur eta gaztetxoak agertu daitkez.

AUR AIZKOLARIEN TXAPELKETA 9 urtetik 11 urte bitarteko aurak artuko dira. Auek, 34 ontzako 2 enbor (Oinbeteoak) ebakiko dituzte. Txapel-gailu ta sariak izango dituzte irabazleak.

AUR AIZKOLARIEN BIGARREN TALDEA, 12 urtetik 15'ra bitarteko aurrez osatuko da. Auek, 34 ontzako 3 enbor ebakiko dituzte (Oinbeteoak).

Leiaqueta euetan sartzeko, gurasoen bidezkoak karri bearko dute aurroek. Eta erakusle bat ere laguntzaile izango dute.

GAZTE AIZKOLARIEN TXAPELKETA, 16 urtetik 18'raiñoko gazteak sartuko dira. Baditeke txapelketa antan 20 urteraiñokoak sartzea ere. Auek, 45 ontzako 3 enbor eta 54 ontzako beste iur ebaki bearko dituzte. (Kanaerdikoak). Sariak aukeratzeko dira:

- 1.-Txapel-gailu ta 10.000 ptas.
- 2.-8.000 pta.
- 3.-6.000 "
- 4.-4.000 "
- 5.-3.000 "
- 6.-2.000 "

Beste guzietan, 1.000 bana pezeta emango zaizkie. Jokalari guziak beren Elkarreko Txartela agertu bearko dute izena ematerakoan.

Uarte-Arakil'go erria, aizkolari berrien eskola bihurtu bear zaigu, noski. San Migel'en inguruko baso guziak morroztu bear dizkigute, iñolaz ere. Erritlik kanpora bizi diran erriko-semeak, etxera agertzeko aukera ederra izango dute egun oietan.

baitan

BAZTANDARREN BILTZARRA

Buruilako lendabiziko asteko aro txarra ikusita, yendea kezketan za-

Bodegón Alejandro

Alejandro'ren Bodega dago Donosti'ko txoko baten, bein ezagutzen dutenak zintze dakite aruntz joaten. Nai dan aukera ba-dezu beti jaten bezela edaten, oherik ezin arki ditoke merke ta ondo ematen.

Fermin Calbetón, 4
DONOSTIA

José Lizaso Bar Landeta

Zer nai, artatik erruz ba-dezu edinetan da janetan, ostatu onen sona zabaldu zaigu alderdi danetan. Zure zal beti zabalik dago; ez da trabarik atetan, gorputza premiz dezun guzian sartu zaite Landeta'n.

AZPEITI, LANDETA.
Urrutizkiña: 81-13-11

gon igandeko baztandarren besta ondutuko ote zen beldurarenkin: izan ere egun hoiletako ortosak eta inezturek ez zakarraten eguraldi onaren esperantzak. Buruillaren zazpila argitu zuen eta aintzineko egunetan bezala zerue goibel ta ilun agertu zitzaizkun iduri baizuen, erasan behar zuela, bainan gero goibelen artetik eguzkia kirrikaka ibili ta ondoan eguraldi aski polita agertu zitzaizkun nai ta zeruen goibelak barrandan zabilzen.

Baztandarren Biltzarria ospatu da eta aurtengoarekin seigarrena. Aurtengo biltzarrean herri bat gehiago ginen gure artean. Orai berriki Amayur'ko herria Baztan'go egin da eta aurtengoarekin seigarrena. Aurdugu Baztan'go Ballea, lenago ama-lau aurride ginen eta orai amabortz gara, hortaz bada Amayur'ko herria'ri ohorezko arrera bat egin zitzaion. Amayur, Nafarroa'ko kondairan aipatua da eta badu ospea eta izen ona.

Besarkada maitekor bat Amayur'ko herriari
Oroitzapena ta ohore azken Nafartarren Gazteluari.

Bertze urtetan bezala mundu bat yende bildo da Elizondo'n. Baztan'go herri guzietatik, Bidasoa aldetik eta Iruñe, Lizarra ta Nafarroa'ko alde guzietatik eta bai Gipuzkoa aldetik ere etorriak denak anai onak bezala, Baztan'go Biltzarriari ohore egin zitela.

Bederatzi terdietetan Meza Elkartua eskuaraz, amar apez baztandar alderako mai inguruan. Meza guziz ederra izan da, kantu otolitz eta itzal-di hunkigarriak egin direlarik. Eliza bete bete yendez, eta berriz ere erranen dut elizkizun zoragarria izan dela, izan ere gure mintzairan egirikako mezak bihotza ukitzen baitute.

Meza ondoan karrozen ibillaldia Elizondo'ko karrietan barna. Urtero bezala Balleko Ikurrina eta baztandar txistulariak aintzinean. Gero Amayur'ko karroza, Luzalde'ko dan-

tzariak, Almandoz, Aniz, Arrayotz, gero Tolosa'ko dantzariak eta hoi en ondolik, Elbete, Errazu, Gartzain, Iruñe ta lekarotz'ko karrozak, eta azkenik Iruñe'go gare-yoleak edo zarpantzar delituekoak. Bertzetan bezala karroza bakoitxaren aintzinean txistulariek, trik-trixak ta kordionistak, eta denen inguruan neska ta mutikoak dantza ta yauzi. Denen artean 20 karroza erakutsi zituzten, denak politik eta euskal-giroa adierazten zutenak.

Eguraldi aldean plaza zaharrean euskal-dantzak. Tolosa'ko eta Luzalde'ko dantzariak aritu ziren eta hoi en ondolik eta goizeko besta burutatzeko, baztandar gizon ta mutil gazteak mutil-dantza edo bat dantza zuten.

Gero merkatuko plazan bazkaria 1200 lagun malean garririk. Ez pentsa denak baztandarrak zirenik, erdiek beñipin kampotarrak ziren, Iruñe ta Nafarroa'ko bertze herrietatik etorri zirenak eta bai gipuzkoarrak ere. Bazkalzen asi orduko goibeldu

zuen eta bazkariaren erdian euri-erantsi bizkorra egin zigun denak ederki busti ginelarik, beharrik eza: untziek etzuela aunitzik irau. Bazkalondan, soñu kantu ta dantza eta denak umore onean.

Gero yendea barreiatu zen eta Elizondo'ko karrika ta ostatuetan yendea bazabilen poza ta alaitasuna nabari zuela.

Arratsaldeko zortzi terdietetan plaza zaharrean ikusgarri edo bat izan ginen. Miarriz'ko «OLDARRA»-koak aritu zitzaizkigun, euskal dantza ta kanta ederrak erakutsi zizkigutela. Plaza bete bete beñere ez bezala eta denal loriatuak miarriztarrek eginkako dantzaldi ta kantaldiakin. «OLDARRAK» oroitzaipen edo bat utzi digu. Bi ordu pasa irau zuen «Oldarraren aitaldiak eta haien ohoretan eginkako esku-zartak Miarriz'en aditu zituzten.

Aurtengo «Baztandarren Biltzarria»-ren eguna ospatu dugu eta yendea kontent dago.

M. IZETA

ASTE - OPARIAK

JATONTZI TA MAI - TRESNAK

Victor Pradera, 2
Urrutizkiña: 25700

DONOSTIA

BAR - RESTAURANT

AURRERA

DONOSTIAN ZURE JATETXE BAKARRA

Urbietako kaleko 12'an
Urrut. 12573 - 11528

DONOSTIAN



zu,
garrantzi

aundikoa zera

BANCO DE VIZCAYA -rentzat

Zu, ni bezela langillea zera; baiña Diru-Etxe bateko zirkullurik ezer ez dakizu. Ala ere, zu oso garrantzi aundikoa zatzazko Banco de Vizcaya-ri.

Ori bai. Ni bankuetako kontuekin zeoro nasten nai. Ango sasi-izkuntza!... Deskuentuak, endosoak, kompensazioak... Ezta ala?... Eta olek itzak!... Ta, egia esateko bein baiño geiagotan, parregarri gelditu izan

nai, orrelako sasi-izketa ez dakidalako. Baiña Banco de Vizcaya-n, dena argi ikusi izan det.

Neretzat mesede aundiko izan diran, laguntza asko eskeini izan dit.

Izan ere, oso garrantzi aundikoa omen nazala ni etxe orri.

Zoaz urrena daukazun Banco de Vizcaya-ko Sukursalera eta ikus eza-zu zerorrek nik esaten dizudana.

BANCO DE VIZCAYA

Zu bezelako batentzat

ECHABE

ETXABE'REN

Mueble - Etxea

Fuero'en Enperantza

Urrutizkiñak: 84 10 78
84 11 21

ZARAUTZ

Zeruko Argia

Zuzendaria:

ANTONIO ITURRIA
ASTIAZARAN

Nafarroko-Kantauriko ta Aragoko Kaputxinoak argitaratua
(Carlos III, 22. Pamplona)

DONOSTIA'n:

Oquendo, 22: Telf. 26656

ARPIDE SARIA:

Urtekoa 190 Pta.

Atzerian 285 "

Aldex artu nai bada, geldetu.

EUSKAL ERRIETATIK

soraluze

MARGO ERAKUSKETA

Aurten ere Gordejuela adizkidea, bere margolari zaletasuna agertuaz bere erakusketan oso langille etorri zaigu. Amalau margozi (cuadro) azaldu ditu ta ezan liteke, bere bidea margo-landa (paisaje) lanean biltatu duala.

Amalau margozik itan abek azaldu ditu: Bodegoli bat, lora txorta bat ta beste «Espiritu ta Kondaira» izentzen duan bat; gaferantzekoak «pajajek» dira.

Askenengo erakusketatik onera aurreraka aundia egin duala iruditzen zaigu. Bai margoak eta argiak erabiltzen; marrezkia ere oso eder-tu du.

«Motriko'n kayarako joxiera», «Lertxundi-etxea» ta «Zubiya» guri goyen bat ederreki zaizkigunak, beste margoziak ezertxo ere kentzeko.

Txalagarria da benetan adizkide onen leitasuna. Lantokian egunak igaro ondoren, bitarteko ordubakiotzen ditualako bere margoak duan zaletasuna betetzeko.

Gure zorionik bereona ta aurrera jaraitu dezala bide orratik eta gongo malla lortu dezala da guk biotzez opa dioguna.

Gure erriko gazteak ba-dute nor eredu artu. Gordejuelak jarri duan borondatea, bakoitzak jarriko bagendu, beste era batera azalduko litzake gure erria. Baño tamalez, beste zalekeri batzuek daude sartuak gure errian. Begira bezela, arratsetan, gure arangelak nola beatek egoten diren.

GAZTEDIAK

Eibar'ko Arrate'ko Gaztedia gogor ari da kultura gayk eibartarrei eskeintzen.

Tarteka-tarteka gauz deigarriak antolatzen dituzte. Bateko erestaldiak, urrengo itzaldi mota askotakoak ta abar. Arantsu, berak duten antzokian, Apolo XI'garrenak ilargira egin zuan joan-etorriaren, margo-dun zinea eskeini dute.

Gure Gonzaga Gaztediak ere, inoiz itzaldiak antolatu izan ditu, baño ikusten degunez, gure errian itzaldietarako zaletasun aundiegirik ez eta geyenatan oso jende gutxi izaten da. Bear bada, gauz deigarriak jarriko ba, jende geyago izango litzatekeela usten degu.

Orretarako bide bat beintzat, Arrate'ko Gaztediak ta gure Gonzaga taldeak artu-emane izatea izango litzake. Ta orrelako gauzak Eibar'era ekartzen dituenen, gure taldeak arduratu bear luke gure erriari ere eskeintzeko.

Gaztedi talde oien artean artu-eman ori lortzeko gizonak ba-daude-lirizten zaigu. E. Oon Luis?

KARAKATE

zaldibi

TEORIKO HUTSAK

Bildurgarri eta kezagarri da benetan teoriko hutsaren mailan geldituko ote geran pentsatzea. Hitz hutsak ez gaitu inoiz ere beteiko. Hitzetan sinestera nahi badute gure teorizanteak, lehenik agertu beharko digute zer, nola, noiz eta non lan egin. Hori ezean, hainbeste txanxangorri bezalatsu lirake: bere abeste ederre aztegiangorri izan arren gure belarientzat, beti ulergaitzak lirake gure zentzuentzat.

Jesukristo-k hori bera erakutsi zigun: ez da aski «Jauna, Jauna» esatea.

Zer egin? Lanari heldu; ekitntza sailen batean murgildu.

Herri oso hortara ez datorren artean, ezin aitortu kontzientzi lasalaz kristau-herri gerarik. Beraz, bakoitzak aztertu ditzala bere dohaia, eta gero heldu dagokion ekitntzari.

OHITURAK ASTINTZEN

Gure lagunartean ohitura asko ditugu, eta guziak ez ote jatorrak. Hain itxusi zaigun bat aztertu zagu gaurko.

Nolakoak dira gure arteko alkar hizketak? Konturatu ahal-gera nolakoak diran erabili ohi ditugun hitzak? Ezetz dirudi, bestela lotsik ez dugula aitortu beharrean gera. Nola onartu euskaldunon artean hainbeste birau? Eta itxuraz, lotsatu beharrean, ez dakit ez ote geran gehiago arrotzen; izan ere, zenbat eta handiagoak bota, orduan eta algar handiagoak entzuten dira. Hortan ere erru osoa ez da gazteena bakarrik eta gurasok ere ba-dute zerikusia hain axolik gabe jokatzean.

Ez ahal da negargarri biraurik eza gutzen ez duen euskera garbi hontan horrelako hitz zatarrak nahastea? Ez dezagun ahaztu horrelako ohiturak ez datozela ondo ez kristautasunakin eta ez-eta ere edukazio pittinbat duenakin.

GURE ERREKA

Ez du asko balioko baldin Ordizia-ko herriak, bere asmoak aurrera eraman baditu. Entzun dugu gure errokarri segundo bakoitzarako hirurogi litro kendu nahi dizkiola.

NANARRI BABESETIK

zumaia

Gure txalorik beroenak gure agintari artuberrak dituzten erabaki onuragarriagatik. Bata, Txikiel-din erriko zaborderiak erretzeko egitera dijoazen labeagatik. Oso ederki dago neurri auxe. Eta bigarrena, pelotaleku onduan zabaldutik bear duten liburutegia gatik. Euskerazko liburu eta euskel-kulturakikuak ugari izan ditzagula bertan, ordea. Bidezko baita.

Andre Mari Arritokieta'kua txit maite degu zumaitarrak. Andre Mari au koroitueta'kua da. Gure erriak Andre Mari onen inguruan asiera izan omen zuan.

Aurten ere bederatzizurren bika-na egin zailo eta zumaitarrak Arritokieta'ri dioten maitsuna argi azalduak dira. Erri osuak ixiu ditu Arritokieta bideko eskallera aldapsuak. Elizkizun bikañak egin dira eta Aita Zubiaga jesulagun ezagutuaren itzaldi gatzdunak berriz ere entzuteko zoriona izan degu. Ez ditezela azken izan orratik, Aita Zubiaga!

Bijuaizkie gure txaloak elizkizun aben antolatzaleei.

Gure udazaleak Zumaia lega eta beren txokoetara joanak edo abiatuak ditugu. Laister bertakua baka-rik gelditzen gera eta Zumal'k Zumaia emango du eta ez Biarritz txiki bat bi-iru illabete abetan bezela.

Oikiarrik jatorki egon ziran erri-ko pestetan. Antxe gñan. Pozik ala ere. Elizakikuak ederki eta elizatik kanpokuak ere baita. Badute nuntz buruargiren bat gauzak ondo prestazen dakiena. Zorionak Oikina aukozko zumaiar jatorrak!

Bertan ditugu berriz S. Migelak eta baldinbaltzer Artadiarrak ez dute gutxiago izan naiko. Ala bear ere, alajaitan. Antxe izan nai genuke. Aurtengo udaraldian bitan izan naiz Artadi'n eta bitan elizan erderazko itzaldia egin zan. Artadi'ko elizan erderazko itzaldia? Askori aritu gñan eta ez du inor ala zalekorik sinistu ere egin nai. Dijela datorren ingandean eta berak ala dala ikusiko du.

Illberria degu Angelita Fernandez Barria Andre ona bere 72-garren urtetan. Atsekabe aundi onetan biotzez laguntzen diegu bere senar Agustín Epelde eta bere seme-ala ba guztiei. Irakurle, oitotz bat bere animaren alde. G. B.

ARRANTZALE

EZEIZA ETXEA

OINETAKOAK — MERTZERIA — EUNGINTZA

Idiazabal, 18 — Urrut. 59021 — URNIETA (Gipuzkoa)

URNIETA

ALDERDI MAITEA

Trenea presaka igarotzen naizen bakoitzetn, alako begirasun maitekorra bota oi diot Urnietako erriari. Ba du, izan ere, bere Eliz-dorre ta inguru goxo arek, biotza amesetan jartzeko aide pixka bat.

Nork eztu ikusi alderdi maite ura, gure Euskalerriko usaz limurtua? Ta gaintxo aretan, sasegu-aidez gozatu, antxe dago Urnietako auzo nagusia. Eliza omen, Kontsejupeko arkuak or, eta Leokadia Donearen Ermita arutzatxoago. Orixe dezu Urnietaren biotza.

Zoritzarrez, azken-urte auetan beste etxe berriz betetako auzo berriak ugaltzen ari zaizkio. Ta auzo berri auek ez diote lengo izaerari mesede asko egiten. Baina ori, beste erri askotan gertatzen zaigun izurria da ta goazen gure ariari.

San Migelak, Oñati'n, nagusi-koak dira. Inguruko erriak aundi-koak bai-ditu. Baina bere batean, Urnietak ere ez da atzera gelditzen bere jaietan. San Migel Eguna ta urrengo ingandean Errosario jaia, berebikoak ditu Urnietako erriak, jendea kalera ta plazara ateratzeko.

Erriko Aiantamentua XVIII'garren giza-dikoa dezu. 1905'garren urtean, ala ere, suak ondatu zuan asko. Erriko arma-ariak etziran zorionez galdut, ta on dituzte Erriko Etxe aurrean Zuaznabar'ar Jose oiarzua-rrak egina. Eliza Nagusia, San Migel'ei eskeini du. Ba du zorrait ja-kingarri: bertako kulpittua, len Donostia'ko Santa Maria elizan izana da. Santa Leokadiaren ermitak isten du plaza laukotu onen alde bat. Santa onek ba du aurren gaitzak sendatzeko almen berezia, ta erri-koak ara daramazkite beren aurak, alko ames txarrak galdut ta ainge-ruen ames egin dezaten, edo-ta izketan atzeratuak datozenean, perretxiku biurtu ditzeten.

Adarra ta Buruntza mendiak ditu zaitzaille inguruan. Gurutzeko Ermita on goian agiri da, gailurrera bi-dean.

Erri onek kalte aundiak izan zituan, Altzak bezela, XIX'garren giza-diko karlista-gerratean. 1837'garren urteko Agorren 8'a zan. Soldaduak elkarren kontra jaiki ziran erriaren inguruetan eta alde bietako burrukaliarik ederki saiatu ziran etxe ta basarriak kixkaltzen. Orduan zan erri txikiarentzat naikoa ondamen izan zan, 46 etxe ta 106 basarri erretzea. Bertsolariak luzaro joratu zituzten gudelariak: O'Donnell jauna ori zutela egingen; Panparro' illilli zan etxiak erretzen...

Baiña utzi ditzagun negarrak eta gauden jai-girotan. San Migelak, pozgarri dira Urniet'a. Udazkenean sarrera eta urteko azken-jalak diranez, kanpoan bizi diran erri-ko semeak inguratzeko aukerakoak dituzu. Etxetan aspaldian elkar ikusi gabeko anai-arrebak txango ederra egingo dute egardian. Mai-ingurua luzea ta ezin aldegin elkarrengandik.

Aurretik, jakifiekoka: Meza Nagusia bere itzaldiarekin Elizan. Emen irauten dute oitura zaarrak bere osan. Errikoak ez izan arren, angoen lagun diranak eta gure gazte-ki alala, an bilduko dira urteroko giro gozoan. Trenea Urnietak parean igarotzen bazera, etzaita aurrera joan. Jetxi zaite Sanmigeletan eta etzaizu damutuko.



JUAN JAUREGI ITURBE

AZKOREN EGILLEA

Urrut. 50450

URNIETA (Gipuzkoa)

ZALDUNDEGI

BAR - RESTAURANT

JANAK ETA EDARIAK

Idiazabal, 15

Urrut. 59958

URNIETA (Gipuzkoa)

ANTONIO

BAR - RESTAURANT

(IGARATEGI)

BURDIN-SARETAKO XERRATAN ESKU-BEREZIAK

Idiazabal, 23

Urrut. 59954

URNIETA (Gipuzkoa)

«TXAPEL»

BAR - RESTAURANT

AUKERA-TXARTELAKIN JATORDUAK

Idiazabal, 24

Urrut. 51360

URNIETA (Gipuzkoa)

IZAGIRRE

ERREDIZAK (MUEBLEAK)

Idiazabal, 17

Urrut. 50458

URNIETA (Gipuzkoa)

"PAGOAIN" AROZTEGIA

(JOSE MARIA ZAPIAIN ETA BIKTORIANO PAGOLA)

MEKANIKA AROZTEGIA

Alto Zibulio

URNIETA (Gipuzkoa)



OINATI JAIE TAN

Gaur, urtetan aurrera goazenok, gure gaztetako Oinati oso gogoan degu. Eta Sanmigelak urreratu ezker, gure oroitza zaarak biziro berritzen dira. Aurtan aidean dabil Oinati'ko Batzar Aundi are berrogei ta amargarren urteburua, ta arekin batera, Euskaltzaindia'k bere leengo Billeren Urrezko eztaiek nausiki ospatu nai izan ditu.

Oinati'ko Batzar Nagusia, 1918'garren urteko Agorrillan!... Orduko gure emezortzi urteak ariñak zeuden Elosu galfetik aruntzako bidea artzeko. Gora ta gora Azkolti'tik lenbizi. Bera ta bera gero Bergara alderuntz. Artean etzan kamiñu leunik mendi-arte aretan, eta gure oinaki lan egin bear izan zuten bide ta bidexka aiek menderatzeko.

Gero Bergara'tik Oinati'ya zaldizko kotxe aietako batean, Beribillak artean urri genituan. Oinati Batzar aretako prest eta gu basarri batean jan da lo egiaz, egun aietako jai ta billeratan murgiltzeko pozetan.

Begien aurrean daukat Apraiz'tar Rikardo'ren idazlan irakurgarri bat erderaz egia. OINATI'RI IKUSTALDIA— du izenburu lan onek. Apraiz jauna, Oinati'ko Instituto zaarrean ibillitakoa da ta egun aretan biltzeak ziran ikastetxe artako ikasle izanak eta gaurko irakasleak.


Ikastetxe Zaarra bere girotan arkitzen da, Oinati' berriko aidea lengo kondeira zaarrekin elkartzen. Eta Apraiz jaunari Migel Unamuno'ren oroitza ta esan bat datorkio burura. Bilbotar jakintsu biurri arek, au esan omen zion bein:

—Zeñen politak diran Gobernadorerik gabeko Obispodun erriak! Astorga, Kompostela, Burgo de Osma, Orihuela ta abar aitatzen dituz gero. Ta Oinati, orrelako zerbait dala dio gazteiztar idazle argiak. Oinati'k ezta Obisporik, baiña orren

O Ñ A T I

OSPITAL BERRIA

Oñatiarrak poztu gaitezen, badoa lana aurrera. Gauza guztiak denbora bear, ta bitartean marmarka jardun gendun. Diru batu eta ez zal ezer azaltzen. Or orain nola dijoan gure etxea aurrera. Lengo zarra ere ederra egin zuten baten batzuek. Orain ere ez gaitezen oñatiarrak atzera begira egon. Egin dezagun ona ta ondo.



ordez, an du bere Unibersidade zaarra, alako nagusitasuna emanaz erriari.

Zuazola'tar Mercado gotzaiak jator jantzi zuan bere jaioterria Unibersidade ta Eliza Nagusiko ertilanez. Orain or daude gure Euskalerriko usai gozoa dariola, gure gazte-di urdurari Kultura-bidea erakusten. Ta bide ori gelditzen zaigu pakezko biderik onena gure erria jasotzeko. Gure artean errezegi zabaltzen zaizkio indarkeriari atek. Aide mingarritan sartzen gera ta geroko ondorenak latzak eta luzeak izan oi dira. Bitartean erortzen diran gizajoak, itzalpean dute ordu luzetako biltza aspergarria.

Oñati'k bere Plaza Nagusiko pake-giroa erakusten digu. Arkupe argi aiek, erriko etxeori bere aidea ematen dio. Eguradiko eguzkitan. Arantzazu'rako berbillaren zai iñoz egon bazera, ba dakizu egoera orren gozoa. Eta onela joan dira berrogei ta amar urteak, Euskaltzaindia sortu zanetik.

Unamuno'k esana berrituz, guk ere orixe esango genduke: Zeñen gozoa dan Gobernadorerik eta Obisporik gabeko Oñati' zaarra!

AMILLAITZ

Santiago Corcostegui, S. A.

SAKATZE SAKONA (embutición profunda) • TXIMIST-INDAR
TRESNENTZAT GAINERAKOAK • BESTE GAINERAKOAK • METAL
ZATIAK KAUTXORI MOLDATU-ERREZAK • METALEZKO ERREDI-
TZAK • OETXO TOLESGARRIAK ELASTIKU ZINTZILIKATIK •
BURNI LANTZE PAREGABEA.

Obispo Otaduy, 25 — Urrutizkiñak: 781540 - 781541 - 781542

O Ñ A T I (Gipuzkoa)

OPTIKA

ARGAZKI

PLAZAOLA

R. M. Zuazola, 31 — Urrut. 781457 — O Ñ A T I

MUEBLES

URRETAVIZCAYA


1920'an sortutako etxea

ERREDIZAK • EDERGALLUAK

EGIN - GAIK eta AURRE - KONTUAK

POSTAS, 46


GAZTEIZ (Vitoria)



O Ñ A T I



BIDAURRETAKO KOMENTUA



Bidaurreta'ko Komentua. 1492'ganean mustua izan zana. (Plazaola Argazkilaria'k).

Oñati-k badauka Komentu eta Unibersidade ta etxe eder asko. Bat Santa Klara monja komentua. Bere inaugurazioa izan zan Amerika arkitu zan urtean. Bada urte mordoak Arrazkero zenbat gazte sartu zan emen bertan eta pake osoan bizi ta il Jaungoikoaren izenean.

Orain urte gutxi dirala nobiziadua jarri zuten bertan, eta beti daude gazteak. Esaten da orain ezstala bokaziorik; baina Jaungoikoari eskerrak, badaude oraindik gazteak, dantzaleku orduak ezutena engañatzen. Gazte oneik beste gauza guztien gaindik bizi dira.

Orain urte batzuek arbola aundi ta mardula zeukan komentu-etxe onek aurre-surrean. Orduan Oñatiko agintariak agindu zuten arbola ura kendu egin bear zala; erriko jente guztia ikaratu egin zan. Baina orain berriz, ondo irrizten zaigu. Ba orain au bistan eta ederki ikusten da. Turistak begira begira egoten dira, ain gauza ederra dala-ta. Oñatiarrak urte skotan ikusi dezgula.

IZAR-ARGIA

GALARZA

FARMASIA ETA DROGERIA

Zuazola, 6
Urrut.: 78 11 28

O Ñ A T I

ERAMAN - EKARRI'ra
AGENCIA

Transportes ALE

EUSKAL IRRATSAIOAK
ERRI GUZTIRAKO
Iparragirre, 8 - DONOSTIA

Hijo de VICTOR GALDOS

SORTAKETAKO KAJOIAK
ZURAK


Urrut.: 781080
Etxekoa: 781159

O Ñ A T I
(Gipuzkoa)

ALDAMIOAK
ZAMA - JASOTZAILLEAK
ZUTIKAKOAK
ASTOAK
ESIAK
IKUS - SOLA'RUAK
ABE LUZAGARRIAK
ERRODILLO DARDARIZKOAK
ATERPETXOAK
ERALGUNTZAK

ETXEGINTZAKO BURUAUSTE ASKO ERREZTUKO DIZKITZUT

Iruñeko Zezen - Plaza zutikoz sendotzen



«Ulma» lantegiak S.C.I. — Aptdo. 13 — Urrut.: 781445 O Ñ A T I (Gipuzkoa)

GUKELESA



Gipuzkoa'ko ta Nafarroa'ko esne onenakin gertatutako esneklak:

- Esne Pasturizatu
- Esne soila (esterilizatu)
- Esne autsa
- Esne-gaila
- Gurina
- Yogur
- Batidua

Igara zuzua - Apart. 213 - Urrut. 29060 (lau ar) — DONOSTIA

BONBOITEGIA
BEZUZAK

Lor

IGANDE TA JAIEGUNETAN IRIKIA
DONOSTIA
Hnos. Iturrino, 22
Urrutizkifia: 1 94 15

ETXEKO-ANDRE: IRAUN ARAZI ZURE
ARROPEI ONOKO JABOI ONEKIN:

JABON LAGARTO

Zure garbiketa makinaz egiten ba'zazu
ATOMIZADO LAGARTO — jabolai erabilili beti
Eskuz ba'zabiltz, LAGARTO — jabolai bear dezu erosi
JABON LAGARTO, garbiketarako jabol bakarra
Etxeko-andrearentzat neskamerik egokiena,

¡JABON LAGARTO!



1.896 1.969
GIPUZKOA'KO PROBINTZI - ERATETXEA
(Caja de Ahorros Provincial de Guipúzcoa)

Zure diru bearretan gure
«PRESTAMEN SERBITZARITZA»z (Servicio de Préstamos)
balia zaitez

Zure baserria erosteko edo obetzeko
Zure Arrantz-Ontzia erosteko edo obetzeko
Aberea —azienda— erosteko edo obetzeko
Baratzeko frutuak obetzeko
Jakindean jarri zaitez Donostia'ko gure
12 ofizinetan eta Probintziako 63 sukursaletan

donostia erti-lanez apaintzeko

lenengo zizelkaritza-urtebikoa

ERAKARRI ta Turismo'ko Bilguak (C.A.T.) ba du asmo beroa, gure Donostia Eskultura bikalñez apaintzeko. Lendik ainbeste edergarri duan gure Uri au, gizon ertiliarren lanez ederragotu nai du, alegia. Ta asmo ori bero darama aurrera bi urtetik bein onelako erti-jala ospatuaz.

Ain zuzen elkar jo degu C.A.T.'ko Idazkari dan Agirre jaunarekin, eta aukera au onarturik, ekin diogu galdezka:

—Nola bururatu zitzaizuen Erti-Leiaketa au sortzeko asmoa?

—Donostia-ko etxe ta kaleak ikus-tatu ezker, agiriñ dago, uria bere batean berria dala. «Donosti Zarra» bera ere, 1813'garren urteko erreketaz ezkerokoa da. Suak ondatua berritzea erabaki zuten orduko gizon prestuak, eta ala jaso ziguten berri-oro etxadia. Berrogei ta hamar urte geroago, 1863'garrenean, Uri aren arresi ta murallak bota zituzten eta andik aurrera, ego-alderuntz zabaldu zan erria, lenbizi Urumearen ezkerretik, eta 1920'garrena ezkerro Zurriola aldetik.

—Baña ori guzia urrutiti gelditu da...

—Orrela da. Eun urte buruko Enparantza bera, 1913'garren urteko jaietan egin ziran oroitzaiki iraun-

arazteko asmatutako Plaza del Centenario delakoa, izango da Bienal onetan sarituko dan eskulturaz edertuko dana.

—Zer nolako xeetasunak agertzen dira, leiaketa ontara agertu diran lanetan?

—Lenbizi, azaldu diran maketa guziak, jarri diran oiñarren ari-oro asmatu bear izan dituzte. Donostia-ko giro ta aide oni dagozkion zizelkaritzak sortu nai ditugu. Aide busti ta epel oni dagozkionak. Gaiñera, gaurko erti-motaz ikututako eskulturak bear genituan. Ala ere, diru-neurria jarri diogu erti-lanari. Au, ezingo da 200.000 pezeta baiño gela-ago kostatu. Egin da bere lekuan jarri bear da gastu orren barruan.

—Nolako sariak jarri dituzte?

—Lenbizikoa, 50.000 pezetakoa; Bigarrena, 30.000 pezetakoa ta iru-garrena, 20.000 pezetakoa.

Zeintzuk dira maikoak, onena ta urrengoak erabakitzeke?

—Erti-aztertzaile ezagunak dira guziak: Juan Antonio Garalimño, Karlos Arean, Ziriño Popovici, P. C. Whitet, W. Brashaw eta Biktor Manuel Nieto.

—Eduardo Txillida'ren izenik ez-tegu ikusten tartean.

—Alki bat eskeiñi genion, epalka-

Sariketa illaren 19'an egiña izandu zan. Lenbizikoa, 50.000 pezetakoa, Rikardo Ugarte Zubiarain'en «Tente» irudiari eman zioten. Irudia, iru metro luzekoa, burnizkoa izango da. Egiteak eta bere lekuan jartzeak 200.000 milla pezta balioko ditu.

Bigarren saria madrilitar batek eraman du. Baita 30.000 pezta ere, Ikusleak aukeratua berri, beste madrilitar baten, Linares Cobo'ren «Askatasuna» irudia izandu da egilleak. 20.000 pezeta izango ditu.

Rikardo Ugarte'k 27 urte ditu. Ezkondua da; seme bat ere badu. Aurten bertan Ordizi'ko sariketan lenbizikoa irabazi zun.

rien artean, baiña gure deia goxoki atzeratu zuan. Ezta onelako leiketa-juez izateko zale.

—Al ta nolatan dijoa Teni's'ko ibil-leku-ertzean jartzekoa zan «Aize Orrazia»?

—Gure gogoko astiroegi. Txillida'k soseguz artu du lan ori.

—Bienalak, izenak dionez, bi urtetik bein ospatzen dira. Gerorako ala jarraitu nai al du Aluntamentuak Urtebiko jaiak antolatuz?

—Orrelaxe da. Aurten, Juradua erabakio artu ta andik lau illabete-rako, saritutako eskultura bukatusa ikusi nai da. Datorren urtean jarriko da bere lekuan, bigarren saria irabazten duana.

—Zein lekutan jartzeko asmoa dute eskultura berri oiek?

—Auzoetan, bereziki. Oraingo, Eun urteburuko Enparantzen; gero, Bidebieten, Antiguon, Naparruko Abenida azkenean eta Amara berri-ko ainbeste plazatan, Itxas-ertze-tan...

—Zizelkari onak agertu al dira Leiaketa ontara?


—Bai, orixe. Euskalerrikoak lenbizi. (Donostikoak, Bilbokoak, Gasteizkoak, Irungoak...) Gero Espainia-ko beste alderdietakoak. Bat Londres'koa, bestea Bradford'koa ta bestea Edinburgokoa.

—Ikusleak ere aukera izango omen dute sari bat erabakitzeke, ezta ala?


—Baita ori ere. Ikusleak denen artean geien zein gustatzen zaien esateko, eskubidea izango dute. Jendeak aukeratzen duana saririk gabe gelditzen bada maikoengandik, irugarren saria erriak aukeratu-takoa ari eskeiñiko diote.

—Eskerrik asko zure erantzunen-gatik. Onelako Erti-Leiaketa aukerria erti-zale egiteko egoki etorri-ko dira.


(euzk.) ZARAUZBI



Ara emen «Tente» izan dun irudiaren zati berezi bat. Ain zuzen, berak irabazi du lenengo saria.



«Tente» irudia oso-osorik ikusten degu emen. Burnizkoa da. Donostiatar batek egiña. «Zentenario» deritzaion plazan jarria izango da lau illabete-baño leen.



Bigarren saria irabazi dun irudi au Madrilitar Amador Rodriguez'ek egiña da.